

EMAKUMEEN

ETA

GIZONEN

BERDINTASUNERAKO

PLANA

**Ingurumen, Lurralde Plangintza
eta Etxebizitza Saila**

2018-2021



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA



AURKIBIDEA

Aurkezpena	2
Sarrera	3
1. Gobernu Programa	8
2. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana	13
3. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren plangintza estrategikoa	21
3.1. Diagnostikoaren datu garrantzitsuak	21
3.1.1. Gobernu ona	21
3.1.2. Esku hartzeko ildoak	27
3.2. Helburu estrategikoak	35
4. Plana kudeatzeko sistema	39
4.1. Berdintasunerako urteko plangintza	39
4.2. Berdintasunerako egiturak	40
4.3. Jarraipen-sistema	41
4.4. Komunikazio-sistema	42
4.5. Aurrekontu-sistema	43


AURKEZPENA



Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak Berdintasunerako Plan bat garatu du. Plan horrek legegitzaile honetarako emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako bere konpromisoak eta lehentasunak jasotzen ditu. Plangintza hori funtsezko tresna da berdintasun-arloan esku-hartze publiko koordinatua, koherentea, efizientea eta eraginkorra ahalbidetzeko. Gainera, plangintza horren bitartez argi eta garbi islatzen da Sail honek emakumeen eta gizonen berdintasun-esparruan duen benetako konpromisoa, eta horretarako aurrekontu-, giza eta teknika-baliabideak eskaini eta erakunde guztiekin modu erantzunkidean eta koordinatuan lan egingo du.

Plan honetan bereganatutako konpromisoak Gobernu Programarekin eta EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planarekin bat datoz. Azken finean, plangintza horrek bat etorri behar du Eusko Jaurlaritzaren gardentasun-politikarekin eta, horrenbestez, ezagutzera eman nahi zaie herritarrei zer konpromiso hartu dituen Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak bere eskumenen esparruan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-politikak ezartzeko.

Jarraian, Sail honek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruan dituen konpromisoak aurkezten dizkizuegu, baita bidezkoagoa eta berdintasunezkoa izango den gizarte bat lortzeko gure konpromisoa ere.



Arantza Leturiondo Aranzamendi
Lurralde Plangintzako sailburordea



SARRERA

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana esparru-dokumentua da, eta XI. Legealdian sail horrek berdintasunaren alorrean sustatuko dituen politiken gidalerroak biltzen ditu.

Agiri edo dokumentu honekin, sailak erantzuna ematen dio *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen* aginduari, honako hau xedatu baitu aipatutako 15. artikuluan:

- ⇒ 1. – Legealdi bakoitzean, *Eusko Jaurlaritzak plan orokor bat onetsi behar du. Plan horretan, hain zuzen, euskal herri-aginteei emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan izango dituzten jarduerak orientatzeko jarraibideak eta gidalerroak modu koordinatu eta orokorrean jasoko dira. Plan hori egiteko, euskal herri-administrazio enparauei parte hartzeko aukera eman behar die Eusko Jaurlaritzak. Plan hori egiteko orduan, euskal herri-administrazio enparauei parte hartzeko aukera eman behar die Eusko Jaurlaritzak.*
- ⇒ 2. – 1. zenbakian aipatutako plan orokorraren jarraibideak eta gidalerroak garatzeari dagokionez, **Eusko Jaurlaritzaren sail bakoitzak bere planak edo jarduketa-programak egingo ditu.**

Plan orokor hori Jaurlaritzaren Batzordeak 2018ko ekainaren 19an onartu zuen VII. Plana da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 15.1 artikulua betez.

AURREKARIAK

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planak legegintzaldiko 3 plan izan zituen aurretik, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorrekoak, kasuan kasuko urteko garapenak barne. Edonola ere, esan behar da sail horren eskumen-eremuek aldaketak jasan dituztela aipatutako legegintzaldi guztietan; etxebizitzaren esparrua ez dago aipatutako plangintzen artean, beste sail batzuen egiturari txertatuta zegoelako eta, beraz, haren plangintza berdintasunerako beste legegintzaldi-plan batzuetan islatuta zegoelako.

SAILAREN BERTINTASUN-PLANAK	INDARRALDIA
⇒ Ingurumen eta Lurralde Plangintza Sailaren Berdintasun Politikako 2007-2009 Dokumentu Pragmatikoa.	2007-2009
⇒ Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Dokumentua-Programa IX. Legegintzaldirako. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila.	2010-2013
⇒ Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Dokumentu-Programa X. Legegintzaldirako. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila.	2014-2017

Plan honek modu sinplean, argian eta zehatzean islatu nahi ditu XI. Legegintzaldirako konpromiso estrategikoak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako arloan.

DOKUMENTUAREN EGITURA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana euskal herri-aginteen jardura zuzentzeko dokumentua da, legegintzaldi honetan emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan aurrera egiteko. Alde horretatik, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari dagokio esku hartzeko estrategiak definitzea, berdintasun-politikak gauzatzeko bere eskumen-esparruan, dela zuzendaritzetan, dela sozietate publikoetan edota atxikitako erakundeetan. Edonola ere, sozietate publikoek eta Sailari atxikitako erakundeek (Ihobe, Ura, Visesa eta Alokabide) beren plangintza dutela azpimarratu behar da. Dokumentu horretan, eta sailaren eta atxikitako erakundeen arteko koordinazioaren emaitza gisa, jasota geratuko da zer ekarpen egingo dioten sozietate publikoek eta erakundeek sailak legegintzaldi honetarako finkatu dituen emakumeen eta gizonen berdintasunerako helburu estrategikoak lortzeari.

Honako hauek dira Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planaren edukiak:

- ⇒ Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari dagozkion Eusko Jaurlaritzaren XI. Legegintzaldirako Gobernu Programaren konpromisoak.
- ⇒ Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila eskudun den Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planeko programak eta helburuak.
- ⇒ Sailaren plangintza estrategikoa:
 - Diagnostikoaren datu garrantzitsuak.
 - XI. Legegintzaldirako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren helburu estrategikoak.
- ⇒ Plana kudeatzeko sistema:
 - Urteko plangintza.
 - Berdintasunerako egiturak.
 - Jarraipen-sistema.
 - Komunikazio-sistema.
 - Aurrekontu-sistema.

PRESTAKETA-PROZESUA

Nabarmentzekoa da, plangintza hau prestatzeko orduan, genero-arrakala nagusien ezagutza hartu dela oinarritzat, baita berdintasunerako politiken ezarpenean alde aurretik egindako ibilbidea bera ere, jarduketa-estrategiak diseinatzeko orduan. Hortik abiatuta, plangintzarako partaidetza-prozesu bat aktibatu da eta, horretan, saileko zuzendaritza guztiek parte hartu dute, baita berdintasunerako neurriak sustatzen parte hartzen duten erakunde atxikiek ere.

Jarraian, sailaren lan-fase garrantzitsuenak zehazten dira:


LANAREN FASEAK	DATAK
⇒ Saileko Talde Tekniko (STT) orokorra: Lantalde Teknikoek (LT) legegintzaldiko eta urteko plangintzaren inguruan egindako lanaren aurkezpena. Berritasunak, sailaren lan-plangintza.	2018ko apirilaren 12a
⇒ Bilerak teknikoak. Legegintzako konpromisoak.	2018ko apirila, maiatza eta ekaina
⇒ Kontraste politikoa.	2018ko ekaina
⇒ Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak dituen lehentasunen aurkezpena Erakundearteko Batzordean.	2018ko uztailaren 4a
⇒ Bilerak teknikoak. Legegintzaldiko konpromisoak garatzeko jarduketak.	Uztaila-iraila
⇒ Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren plangintza-zirriborroaren aurkezpena.	2018ko irailaren 24a
⇒ Behin betiko dokumentua alderatzea eta garatzea.	2018ko urria eta azaroa
⇒ Emakunderen txostena jaso eta aldaketak txertatzea.	2019ko urtarrila
⇒ STT orokorra: Planaren aurkezpena eta azken kontrastea zuzendaritza guztiekin.	2019ko otsaila

Edonola ere, esan behar da, sail honen legegintzaldiko plangintza egiteko prozesua abiarazi aurretik, zenbait jarduketa estrategiko egin direla eta, horiei esker, prozesuan parte hartu duten pertsonak planteatutako hausnarketak eta neurriak hobeto ulertu eta zehaztu ahal izan direla. Jarduketa horien artean, prestakuntza zehatz bat eskaini zaio Saileko Talde Teknikoari. Haren bidez, Berdintasunerako VII. Planaren zirriborroko edukiak ezagutarazi zaizkie langileei, eta genero-ikuspegia Sailaren eskumen-eremuetan modu teoriko-praktikoan txertatzeari buruz hausnartu zen.

Bestalde, Saileko Berdintasun Unitateak Lantalde Teknikoan (LT1) parte hartu du sailek berdintasun-arloan duten plangintza hobetzeko eta hura diseinatzeko irizpideak bateratzeko.

ESKUMENEN EGITURA

Jarraian, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren eskumen-eremuak azaldu dira eskema moduan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko jarduerak non txertatzen diren zehaztuta.





1 GOBERNU-PROGRAMA

[Eusko Jaurlaritzaren XI. Legegintzaldirako Gobernu Programak](#) 4 zutabe, 15 helburu estrategiko, 10 ardatz, 175 konpromiso eta 650 ekimen biltzen ditu. Helburu estrategiko horien artean, «**Euskadi genero-berdintasunaren alorrean Europako lehen 4 herrialdeen artean jartzea**» nabarmentzen da. Europar Batasuneko berdintasun-indizea 69,3 puntutan kokatzen da EAEn, 1etik 100erako eskala batean. Horrek berresten du pixkanaka hobetzen ari direla 2010ean (68,8 puntu) eta 2012an (69,1) lortutako kalifikazioak. Balio hori Europako batez bestekotik (52,9) gora dago.

Jarraian, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari dagozkion konpromisoak eta ekimenak xehatuko ditugu. Gobernu Programan zehaztuta daude.

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILAREN KONPROMISOAK ETA EKIMENAK, XI. LEGEALDIRAKO

41

Karbono gutxiko ekonomia lehiakorra sustatzea.

1. **ekimena:** Klima Aldaketaren Estrategia 2050-Klima 2050 ezartzea.
2. **ekimena:** Aurrezte eta efizientzia energetikoa sustatzeko programak egitea.
3. **ekimena:** Energia berriztagarrien erabilera bultzatzea, % 20ra iritsi arte.
4. **ekimena:** Eraikuntza jasangarria, ekodiseinua eta garraio publikoaren erabilera sustatzea.
5. **ekimena:** Klima-aldaketara egokitzeko ikuspegia txertatzea Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak onartzeko prozesuetan eta lurralde- eta hiri-plangintza antolatze bitartekoetan.
6. **ekimena:** Udalekin lankidetzan aritzea, klima-aldaketara egokitzeko politikak eta neurriak ezartzeko, Udalsarea 21 sarearen esparruan.

42

Ekonomia zirkularrari laguntzea.

1. **ekimena:** Foru-aldundiekin koordinatuta, zerga-sistema berdearen tresnak proposatzea.
2. **ekimena:** Hondakinak berrerabiltzea, birziklatzea eta balorizatzea sustatuko duten tresna ekonomikoak bultzatzea.
3. **ekimena:** Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana 2020 garatzea.
4. **ekimena:** Enpresen gizarte-erantzukizun korporatiboko politiken barruan ingurumen-protokoloak txertatu daitezela sustatzea.



43	Ingurumen, Klima Aldaketa eta Natur Kontserbazioko Legea.
1. ekimena: Ingurumenari, Klima Aldaketari eta Natura Zaintzeari buruzko Lege Orokor baten proiektua onartzea, arlo honetan dagoen legedia integratu eta eguneratuko duena, emisioen murrizketa-helburuak jarriko dituen eta klima-aldaketaren aurkako borroka bultzatzeko neurri arautzaileak ezarriko dituen.	
44	Enplegu berdea.
1. ekimena: Ekintzailatza sustatzea, indartzen ari den sektore ekonomiko honetan, enpresa eta enplegu berriak sortzeko aukera-iturri bihurtu dadin. 2. ekimena: Enplegu berdea sustatzea, sinergiak bultzatuz euskal enpresekin, elkarteekin, erakundeekin eta klusterrekin, eta I+G+Bren aldeko apustu sendoa eginez. 3. ekimena: Ikerketa eta berrikuntza bultzatzea, Ekoberrikuntzaren proiektuen bidez, Ekodiseinua sustatuta, eta Unibertsitatearekin elkarlanean.	
45	Politika publikoetan ingurumenaren aldagaia txertatzea.
1. ekimena: Indarrean dagoen IV. Ingurumen Esparru Programa 2020 garatu eta ebaluatzea. 2. ekimena: Euskal Ingurumen Estrategia berria egiten hastea, non ingurumena oparatasunaren eta ongizatearen faktoretzat hartuko den. 3. ekimena: Ingurumenaren arloan eredugarria izango den administrazioa eratzeko urratsak egitea, EAEko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programa zabaldua. 4. ekimena: Ingurumen-kudeaketako prozedurak eta izapideak sinplifikatzea. 5. ekimena: Foru-aldundiekin elkarlanean, nekazaritza- eta basogintza-politikan ingurumen-aldagaiak eranstea, bereziki Natura 2000 Sarea. 6. ekimena: Enpresen gizarte-erantzukizun korporatiboko politiken barruan ingurumen-protokoloak txertatu daitezela sustatzea.	
46	Ingurune naturalaren kalitatea hobetzea.
1. ekimena: Uraren kalitatea bermatzeko eta xahutzea, espekulatzea eta kutsatzea eragozteko ur-politika bultzatzea, URA-Uraren Euskal Agentziaren bidez. 2. ekimena: Plan Hidrologikoa 2015-2021 eta Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana 2015-2021 berrikustea. 3. ekimena: Ura hornitzeko, saneatzeko eta arazteko azpiegitura hidraulikoak garatu eta eraikitzea, dagoen plangintzaren arabera. 3. ekimena: Airearen kalitatea hobetzen jarraitzea, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) emandako gomendioei jarraituz. 4. ekimena: Lurzoru kutsatuak babesteko Plana egitea, eta lurzoru horiek ikertzeko eta berroneratzeko proiektuak berariaz sustatzea. 5. ekimena: Txinbadia+ Europako proiektua sustatzea. INTERREG V-A Espainia-Frantzia-Andorra Europako Programaren esparruan sartzen da, lurraldeen arteko elkarlanean gauzatzen da, eta lurralde mugakideen garapen jasangarria sustatzeko sortu zen. 6. ekimena: Ingurumen-hezkuntzako politikak indartzea, eta aurrera egitea herritarrek ingurumena babesteko eta zaintzeko duten benetako erantzukidetasunean, Ekoetxeen zeregin aktiboaren bidez. 7. ekimena: EAEren Biodibertsitate Estrategia 2030 garatzea. 8. ekimena: Euskadin Natura 2000 Sarea osatzen duten espazioak antolatzeako planak egitea, eta sinergiak indartzea beste politika batzuekin (besteak beste, basogintza, nekazaritza eta arrantzakoak). Helburua da aurrera egitea ingurune naturala zaintzen eta berroneratzen, kontserbazio-egoera onean.	



47

Lurraldearen oreka. Lurralde-plangintza eta -estrategia.

1. **ekimena:** Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG)-Lurraldea 2040 berrikustea, berariaz bultzatuz degradatutako gunek berroneratzea eta ekosistemen galera mugatuz, populazio-dentsitate handiagoak nagusitzeko, eta lurzuaren erabilera-konbinazioa eta berrerabilera indartzeko.
2. **ekimena:** Lurralde-plangintza, partziala zein sektoriala, lurralde-antolamenduaren gidalerro berrien joerara egokitzea.
3. **ekimena:** Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio guztien koordinazioa sustatzea, lurralde-antolamenduaren gaian (Lurralde Antolamendurako Batzordea).
4. **ekimena:** Udal-plangintzaren informazio geografikoa eta lurralde-informazioa kudeatzen jarraitzea.
5. **ekimena:** Lurzuaren legedia eta hirigintza egokitzea, jasangarritasunaren eta hiri-berroneratzearen eta -berritzearen helburuen zerbitzura. Horretarako, erregelamendu bidez garatuko dira Lurzuari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea eta Etxebizitzaren 3/2015 Legea, eta Hirigintza eta Eraikuntza Ordenantzak egingo dira.
6. **ekimena:** Paisaiaren balioa azpimarratzea, herritarren bizi-kalitatean elementu garrantzitsua baita, eta LAG eta gainerako lurralde-planetan txertatzea, paisaiaren balioak kontserbatuko direla bermatzeko moduan.
7. **ekimena:** Euskal Herriko Unibertsitatearen «Kultur paisaiak eta ondarea» UNESCO Katedraren lankidetzara indartzea eta berritzea, eta eskoletan paisaiaren garrantzia sustatzea.

48

Hiri-birgaitzea, -berroneratzea eta -berritzea.

1. **ekimena:** Europako 27/2012 Zuzentaraua betez, eraikita dagoen parkean esku hartzeko epe luzerako estrategia bat zehaztea, bide emango duena egoerak zehaztu eta dagokion ekintza-planak hiri-garapen jasangarriaren ikuspegitik egiteko (hiri-habitata).
2. **ekimena:** Hirietan eta auzoetan esku hartzeko programa berri bat sustatzea, beharrezkoa den erakunde arteko lankidetzarekin. Horrela, batetik, hiri-birgaitze, -berritze eta -berroneratzeari lotutako esku-hartzeak planifikatu ahal izango dira («Hiri-birgaitzearen eta -berroneratzearen aldeko udalerrak» programa) eta, bestetik, Euskadi lurralde orekatu eta jasangarri batean antolatu ahal izango da, gunek degradatuak murriztuta.
3. **ekimena:** Birgaitze Integratuko Eremuak, Eremu Degradatuak edo Europar Batasuneko Eskualdeetako Laguntzen Mapan sartutako eremuak berroneratu daitezela sustatzea, eta lurzoru industrialak berreskuratu daitezela bultzatzea, berriz ere Industria Aurriak Eraisteko Programa sustatuta.
4. **ekimena:** Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin elkarlanean, tokiko ekonomia eta enplegua sustatzea, hiri-berroneratzearen esparruan, Ekintza Plan Integralaren bidez. Jarduera/enplegua sortzera, guztion ona eta jasangarritasuna lortzera bideratutako ekimenei emango zaie lehentasuna, auzo edo distrituen mailako ekonomia-jarduerak bultzatuko dira, eta, aldi berean, hiri-birgaitzea eta -berroneratzea sustatuko dira.
Lurraldean esku hartzeko diziplina anitzeko zeharkako prozesu horietan, azken urteotan egindako lana txertatuko da, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren barruan, RIS3ren esparruan; halaber, eguneratu egingo da Eraikuntza Jasangarriko Ibilbide Orria - BULTZATU 2025, berrikusi eta eguneratu, 2050era bitartean lortu beharreko helburuak definitzeko, eta 2030 eta 2040an lortu beharreko tarteko urratsak zehazteko.
5. **ekimena:** Hiri-zaugarritasunaren inbentarioa eta eraikita dagoen parkean esku hartzeko beharren diagnostikoa eguneratzea, bizitegi-parkearen ezaugarriak zehaztuta, eta, horrekin batera, kontsumoen ebaluazioa eta herritarren baldintza sozioekonomikoen azterketa eguneratzea.
6. **ekimena:** Finantza-mekanismo eta -bitarteko berri eta berritzaileak bultzatu eta garatzea, elkarlanean jardunez tokiko, lurraldeko, autonomiako, Estatuko eta Europako entitate eta erakundeekin.



49	Pasaiako badia berroneratzea.
1. ekimena: Erakundeen artean behar diren akordioen bitartez, Pasaiako badiaren berroneratze progresiboa garatzen jarraitzea eta bere ingurunea berreskuratzea.	
142	Etxebizitzaren Legean aitortutako etxebizitza bat izateko eskubide subjektiboa garatzea.
1. ekimena: Etxebizitza duin eta egoki bat eskuratzeko bide egonkorra bermatzea baliabide ekonomikorik ez duten pertsonei, edo, hala badagokio, etxebizitza hori eskuratzeko bermatzen duen prestazio ekonomiko bat aitortzea, Eusko Legebiltzarrak 2016ko apirilean onetsitako moduan. 2. ekimena: Etxebizitzaren (ekainaren 18ko 3/2015) Legea erregelamendu bidez garatzea, haren garapen operatibo eraginkorra lortze aldera. 3. ekimena: Arian-arian erakunde publiko bakar batean etxebizitzaren gaineko eskumenak baliatzen laguntzea. 4. ekimena: Etxebizitza Plan Zuzentzailea (2017-2019) egin eta gauzatzea.	
143	Alokairu-erregimena lehenestea, baita gazteen emantzipazioa ere.
1. ekimena: Alokairu sozialeko etxebizitza-parkea handitzea, zenbait formularen bitartez, baina etxebizitza hutsen merkatua mugitzea lehenetsiz, Bizigune eta Asap programen bidez (merkatuan bitartekaritza egitekoak). 2. ekimena: Alokairurako etxebizitzaren eraikuntza edota birgaikuntza finantzatzea ahalbidetzen duten sistema berriak bultzatzea, eragile pribatuei bermeak eskainiz, baita lankidetzaren eredu berriak ere, lurzoruen lagapenaren bidez. 3. ekimena: Gazteek etxebizitza bat eskuratu ahal izan dezatela bultzatzea, zuzkidura-bizitokien eta alokairuko etxebizitza babestuen bidez.	
144	Eraikita dagoen parkea birgaitzen laguntzea.
1. ekimena: Etxebizitzak birgaitzen laguntzeko 2017tik 2020ra bitarteko programa egin eta garatzea, eraikinak behar bezala mantentzeko eta kontserbatzeko premiarekin, Europar Batasunaren Horizon 2020 programatik ondorioztatzen diren eraginkortasun energetikoko eta irisgarritasuneko baldintzak beteta. 2. ekimena: Eraikinen Ikuskaritza Teknikoak egin daitezela bultzatzea, arau bidez garatuz eta ekintza pizgarriak eginez. 3. ekimena: Euskadin, hiri-birgaitzeari, zaharberritzeari eta berrenoratzeari dagokienez, eragile publikoek eta pribatuek egiten dituzten jarduerak koordinatzea, Europatik eutsitako eta orain dela gutxi indartutako ildoan, eta Etxebizitzaren arlotik erakarritako FEDER egiturazko finantziarioko mekanismoak erabiliz.	



Bestetik, honako taula honetan berdintasuna sustatzeko XI. Legealdirako Gobernu Programan jasotako beste hainbat konpromiso eta ekimen jasotzen dira, eta, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren eskumen zuzenak ez badira ere, gure planarekin betetzen lagunduko dugu:

EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA SUSTATZEKO GOBERNU-PROGRAMAKO KONPROMISOAK ETA EKIMENAK	
55	Gizarte-erantzukizuna zaintzea kontratazio publikoan.
55.1	Kontratazio publikoko prozesuetan klausula sozialak txertatzea, zenbait klausula sozial kontratazio publikoan sartzeko apirilaren 7ko 3/2016 Legean xedatutakoaren arabera.
145	Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzea, funtsezko zutabea baita garapen jasangarria
145.1	Balio-aldaketa sustatzea, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko.
145.3	Berdintasunerako Gobernantza hobetzea, genero-berdintasuneko politikak sustatzeko eta koordinatzeko mekanismoak indartuz.
146	Lan-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzea.
146.1	Enpresetan, erakundeetan eta eragile sozialetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzea, berdintasun-programen bidez, Euskadi genero-berdintasunari dagokionez Europako lehenengo lau herrialdeen artean kokatzea lortu arte.
146.2	Neurri ekonomikoak eta sozialak sustatzea, ordainsariei dagokienez berdintasunean aurrera egiteko, enpresetan soldata-gardentasuna sustatzeko eta soldata-diskriminazioari aurre egiteko.
146.3	Bizitza pertsonalaren, familiakoaren eta profesionalaren arteko uztarketa sustatzea.
147	Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzea.
147.2	Emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztera bideratuta dauden sentikortze- eta prebentzio-jarduketak indartzea, zeinak gizarte osorako diren, baina bereziki gazteengan duten eragina.
147.3	Biktimen ordain ekonomiko eta moralerako eta gizarte-onespenerako neurri zehatzak txertatzea.
147.4	Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimenganako arretaren efizientzia eta eraginkortasuna sustatzea, erakundearteko koordinazioaren bidez.
147.5	Emakumeen aurkako indarkeria den gizarte-izurri horri aurrea hartzeko hautemate goiztiarreko planak ezartzea.

Horrenbestez, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planak Gobernu Planarekin lerrokatuta egon behar du, eta sailaren konpromisoak eta ekimenak lortzen lagundu behar du, baita bertako berdintasuneko neurri espezifikoak betetzen ere.



2 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO VII. PLANA

[Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak \(PDF, 1 MB\)](#) modu koordinatuan eta orokorrean jasotzen ditu euskal agintari publikoek 2018-2021 aldian berdintasunaren alorreko jardunean esku hartzeko leroak eta irizpideak; hori dela eta, [XI. Legegintzaldirako Gobernu Programako](#) konpromisoekin lerrokatuta dago. Plana Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak prestatu du, erakunde publiko eta gizarte-eragile guztiekin parte hartuta; era berean, plana prestatzeko oinarrizkoa izan da EAEko emakumeen eta feministen elkarteen eta berdintasun-teknikarien partaidetza.

Berdintasunerako VII. Planak [Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen \(otsailaren 18ko 4/2005\)](#) 15. artikulua ezarritako legezko aginduari erantzuten dio. Era berean, Legeak xedatzen du jarraibide eta gidalerro horiek garatzean, **Eusko Jaurlaritzako sailek berdintasunaren arloan jarduteko planak eta programak egin eta onetsiko beharko dituztela.**

Alde horretatik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren **xedea** botere publikoak gidatzea da, zertarako eta bizitzaren arlo guztietan emakumeen eta emetasunaren mendekotasuna mantentzen eta justifikatzen duten balioak aldatzeko; balio horiek gizonak ere mugatzen dituzte, nahiz eta oraindik botere-egoeran egon, patriarkatuak haien bizitzak ere baldintzatzen baititu, unibertsala da eta.

Balio-aldaketa hori nahitaezkoa da giza garapen jasangarrirako, eta beste balio batzuk sortzea eta finkatzea eskatzen du, androzentrismoak, sexismoak eta matxismoak zeharkatu gabeak; orobat eskatzen ditu beste printzipio filosofiko, etiko eta politiko batzuk, emakumeen eta gizonen berdintasuna, emakumeen giza eskubideen errespetua eta herritarren sustapena garatzea eta txertatzea ahalbidetzen dutenak.

VII. planean ezarritako **printzipioek** adierazten dute zein diren plan horrek inspiratutako eta orientatutako helburuen eta jardueren ikuspegi estrategikoak; **bermeek**, berriz, haien operatibitatea eta inpaktua ziurtatzea bilatzen dute.

XEDEA PRINTZPIO GIDARIAK ETA BERMEAK

XEDEA

- Balioak aldatzea

PRINTZPIO GIDARIAK

- Paradigma feminista
- Genero-ikuspegia
- Interseksionalitatea
- Emakumeen ahalduntzea
- Giza garapen jasangarria

BERMEAK:

- Konpromiso politikoa
- Aurrekontu eta giza baliabideak eta baliabide teknikoak
- Gardentasuna eta kontuak ematea
- Emakumeen eta herritarren parte-hartzea eta solaskidetza
- Erakundeen erantzukidetasuna eta lankidetzak

Helburu hori lortzeko, batetik, **Gobernu Onerako** bost programa jasotzen ditu, Legeak ezarritako aginduak jasotzen eta zabaltzen dituztenak eta administrazio publiko osorako orokorrak direnak. Bestetik, **esku hartzeko ardatzak** definitzen ditu berdintasunaren alorrerako, gizarte bidezkoago eta berdina baterantz egiteko:

GOBERNU ONA

GOBERNU ONA

Berdintasuna txertatzea euskal botere publikoen antolaketan eta funtzionamenduan eta konpromiso politikoa esplizitu egitea.

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

Emakumeen ahalduntzea babestea maila pertsonalean zein kolektiboan, sozialean eta politikoan.

EKONOMIAK ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO

Politika ekonomikoak eta sozialak konektatzea, ekonomia sendagoak eta gizarte jasangarri eta berdina sortzen laguntzeko.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK

Indarkeria prebenitzea, bizirik jarraitzen duten biktimak artatzea eta haiek izandako kaltea konpontzea.

ESKU-HARTZE ARDATZAK



Esku hartzeko ardatzetan proposatutako ekimenen artean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak Eusko Jaurlaritzako zer sailek gauzatu ditzaketen aipatzen du, euren eskumen-esparrua aintzat hartuta. Segidan, VII. Planaren arabera, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren eskumenekoak diren **programak eta helburuak** azaldu dira¹.

Gobernu Onerako programak eta neurriak ²		
I. PROGRAMA: KONPROMIS O POLITIKOA.	GO.1 Berdintasunaren arloko berriazko araudia onartzea eta garatzea.	GO1.1 Berdintasunerako berriazko araudia duten erakunde publikoen kopurua handitzea.
	GO.2. Berdintasun-politikak garatzeko aurrekontua handitzea.	GO2.1 Berdintasunerako berriazko aurrekontuak dituzten erakunde publikoen kopurua handitzea. GO2.2 Berdintasunera bideratutako aurrekontua handitu duten erakunde publikoen kopurua handitzea.
	GO.3. Berdintasunerako plangintza eta horren ebaluazioa areagotzea eta hobetzea.	GO3.3 Partaidetza nagusia kapital publikoarena duten enpresak, berdintasunerako plan bat dutenak, gehitzea. GO3.4 Berdintasunerako plangintza-prozesuak hobetzea. GO3.5 Erakunde publikoek egindako berdintasun-planen ezarpen-, jarraipen- eta ebaluazio-prozesuak hobetzea. GO3.6 Berdintasunaren arloko kudeaketa publikoan kontuak ematea sustatzea, politiken ebaluazioaren emaitzetatik abiatuta.
	GO.4. Berdintasunerako organo eta unitate administratiboak sortzea eta indartzea.	GO4.1 Berdintasunean trebatutako teknikariak dituen unitate espezializaturik duten sailen, erakunde autonomoen eta Eusko Jaurlaritzari atxikitako erakunde publikoen kopurua handitzea. GO4.4 Berdintasuneko teknikarien egoera eta maila profesionala hobetzea. GO4.5 Posizio organiko egokia eta beharrezko aurrekontuko zuzkidura duten berdintasunerako unitateen kopurua handitzea.
II. PROGRAMA: BERDINTASUN NERAKO TREBAKUNTZA.	GO.5 Erakunde publikoetako langile guztiak prestatzea, politikariak barne.	GO5.1 Beren prestakuntza-planetan berdintasunerako prestakuntza txertatzen duten erakunde publikoen kopurua handitzea. GO5.2 Jarduera politiko eta teknikora egokitutako berdintasunerako prestakuntza-ibilbideak diseinatzeko dituzten erakunde publikoen kopurua handitzea. GO5.3 Berdintasunera berriaz bideratzen ez diren baina genero-ikuspegia txertatzen duten prestakuntza-jardueren ehunekoa handitzea.
III. PROGRAMA: GENERO- IKUSPEGIA LAN- PROZEDURE TAN.	GO.6. Estatistika eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea.	GO6.1 Azterlan eta estatistiketan sexu-aldagaia zeharka sartzen duten euskal erakunde publikoen kopurua handitzea. GO6.2 Azterlan eta estatistiketan sexu-aldagaia zeharka sartzen duten euskal erakunde publikoen kopurua handitzea. GO6.3 Emakumearen egoerari buruz eta/edo berdintasunaren arloan ikuspegi intersektionala duten berriazko azterlanen kopurua handitzea.
	GO.7 Enplegu publikora sartu eta bertan mailaz igotzeko hautaketa-prozesuetan berdintasunarekin lotutako edukiak txertatzea.	GO7.1 EAEko berdintasuneko teknikariak hautatzeko prozesuak, berdintasun-arloko berriazko prestakuntza eskatzen dutenak: ehunekoa handitzea. GO7.2 Emakumeen ordezkariak txikia denean, berdinketa hausteko emakumeen aldeko klausula bat duten enplegu publikoa lortzeko, hornitzeko eta sustatzeko hautaketa-prozesuen ehunekoa handitzea. GO7.3 Beren gai-zerrendan berdintasunari buruzko edukiak dituzten enplegu publikoa lortzeko eta sustatzeko hautaketa-prozesuen ehunekoa handitzea.

² Kolore honetan nabarmentzen dira **legealdirako zer lehentasun** ezarri dituzten Emakundek eta berdintasun teknikariek gobernu onerako.



	GO.8 Komunikazioan berdintasuna txertatzea.	GO8.1 Hizkera ez-sexista erabiltzen duten EAEko aldikari ofizialetan argitaratutako dokumentuen ehunekoa handitzea. GO8.2 Hizkuntzaren eta gainerako komunikazio-elementuen erabilera ez-sexista egiten duten euskal herri-administrazioen webguneetako edukien kopurua handitzea. GO8.3 Euskal erakunde publikoek erabiltzen eta berdintasunaren arloko lorpenak agerian jartzen dituzten komunikazio-euskarrien (memoriak, webguneak...) erabilera handitzea. GO8.4 Erakunde publikoek onartutako berdintasunaren arloko oinarritzako dokumentuak guztientzako eskuragarri jartzea.
	GO.9. Araudian berdintasunaren printzipioa txertatzea.	GO9.1 Generoaren arabera eraginaren ebaluazioak egiten dituzten foru- eta toki-administrazioen kopurua handitzea. GO9.2 Generoaren arabera eraginari buruzko alde aurreko ebaluazioa duten arauen ehunekoa handitzea. GO9.3 Berdintasuna sustatzeko neurriak dituzten arauen ehunekoa handitzea.
	GO. 10 Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzea.	GO10.1 Aurrekontuak berdintasunean duen eraginaren aurretiko balorazioa egiten duten herri-administrazioen kopurua handitzea. GO10.2 Genero-ikuspegia aurrekontuetan txertatzeko jarduerak egiten ari diren herri-administrazioen kopurua handitzea.
	GO. 11 Genero-ikuspegia sartzea sektorekako eta zeharkako planetan.	GO11.1 Beren diseinu-, kudeaketa- eta ebaluazio-prozesuetan genero-ikuspegia kontuan hartzen duten sektorekako eta zeharkako planen ehunekoa handitzea. GO11.2 Berdintasunerako unitate edo eragile batek osatu eta ezarri dituen sektorekako edo zeharkako planen kopurua handitzea.
	GO.12. Kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartzea.	GO12.1 Kontratu eta/edo dirulaguntzetan berdintasunerako klausulak txertatzen dituzten eta betetzen diren ala ez kontrolatzen duten erakunde publikoen kopurua handitzea. GO12.2 Berdintasunerako klausulak txertatzen dituzten kontratuen ehunekoa handitzea. GO12.3 Berdintasunerako klausulak txertatzen dituzten dirulaguntzen, hitzarmenen eta beken ehunekoa handitzea.
IV. PROGRAMA: KOORDINAZI OA ETA ELKARLANA.	GO.13 Berdintasunerako koordinazioa eta elkarlana indartzea.	GO13.3 Berdintasunerako sailarteko koordinazio-egitura duten Eusko Jaurlaritzako sailen eta horretan parte hartzen duten arloen kopurua handitzea. GO13.4 Nazioarteko lankidetzako guneak ugaritzea.
V. PROGRAMA: PARTE- HARTZEA ETA ERAGINA.	GO. 14 Emakumeek eta gizonen zuzendaritza-organismoetan edo organo pluripertsonaletan ordezkaritza orekatua izan dezaten sustatzea.	GO14.1 Emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua duten kide anitzeko zuzendaritza-organismoen ehunekoa handitzea. GO14.2 Emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua duten epaimahaien edo antzeko organismoen ehunekoa handitzea. GO14.3 Emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua duten hautaketa-epaimahaien ehunekoa handitzea.
	GO. 15 Kontsultarako eta parte hartzeko guneetan genero-ikuspegia sartzea.	GO15.1 Berdintasunerako herritarren partaidetzako batzorde edo organo bat duten herri-erakundeak gehitzea. GO15.2 Herritarrek parte hartzeko batzordeak eta organoak, beren osieran eta beren funtzio eta helburuen artean berdintasuna txertatzen dutenak, gehitzea. GO15.3 Emakumeek politika publikoetan parte hartzeko batzordeen, organismoen, plataformen eta beste modu berrien eragina handitzea.

1. ARDATZA: Emakumeak ahalduzko programak eta helburuak³

1. PROGRAMA: EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONAL ETA KOLEKTIBORAKO LAGUNTZA.	1.1 Giza garapen jasangarriko emakumeek eta feminismoak duten zereginaren onarpena sustatzea.	1.1.1 Berdintasunaren arloko gizarte-aurrerapenean emakumeek eta feminismoak egindako ekarpenen agerikotasuna eta onarpena handitzea. 1.1.2 Gehien feminizatutako bizitzako eremuen gizarte-balioespena handitzea. 1.1.3 Emakumeek eta feminismoak bizitzaren eremu guztietan egiten dituzten lorpenak eta ekarpenak gizarte-komunikabideetan hedatzen laguntzen duten programen eta edukien kopurua handitzea. 1.1.4 Emakumeek eta feminismoak gizartean eta historian egindako ekarpenak beren hezkuntza-proiektuen edukietan txertatzen dituzten ikastetxeen kopurua handitzea.
	1.4 Baliabideak hobetzea, halako moldez non emakume guztien askotariko egoerek, esperientziek eta premiekin beren aldatetan eragin dezaten, bereziki desberdinkeria handienak dituzten baliabideetan.	1.4.2 Garraio eta ekipamendu publikoaren estaldurarekin pozik dauden emakumeen kopurua handitzea, bereziki landa-ingurunean, talde- eta behar-aniztasuna aintzat hartuta.
2. PROGRAMA: EMAKUMEEN AHALDUNTZE SOZIAL ETA POLITIKORAKO LAGUNTZA.	2.1. Gizarte- eta herri- mugimenduetatik berdintasuna sustatzea.	2.1.1 Emakumeen berdintasuna lortzearen alde lan egiten duten emakume-elkarleen kopurua handitzea. 2.1.2 Egitarauetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko helburuak dituzten erakunde sozialen kopurua handitzea. 2.1.3 Munduan emakumeen eta gizonen eskubide-berdintasuna eta, bereziki, emakume errefuxiatuen eta migratuen eskubideak sustatzen dituzten emakume-elkarleen eta gizarte-erakundeen kopurua handitzea.
	2.2. Emakumeek gizartean parte har dezaten sustatzea, eremu eta gune guztietan.	2.2.3 Gizarte-, sindikatu-, enpresa- eta politika-erakundeetan parte hartzen duten emakumeen kopurua handitzea. 2.2.4 Gizarte- eta politika-arloan parte hartzen duten emakumeen kopurua handitzea, parte hartzeko formula eta/edo gune berrien bidez.
	2.3. Erabaki- eta zuzendaritza-eremuetan emakumeen presentzia eta eragina handitzea.	2.3.1 Emakumeen presentzia indartzea ordezkari eta/edo ardura politiko publikoko postuetan. 2.3.3 Elkarre-mugimenduko, irabazi-asmorik gabeko erakundeetako —kulturen, kirolaren eta aisialdiaren arlokoak barne—, erakunde politikoetako, sindikatu etako eta enpresa-erakundeetako erabaki-postuetan eta -guneetan dauden emakumeen kopurua handitzea.

³ Erakunde guztien eskumenekoak diren helburuak nabarmentzen dira, baita Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren eskumen espezifikoak diren helburuak ere.

II. ARDATZA: Eskubideak bermatu ahal izateko ekonomiak eta gizarte-antolamendua eraldatzeko programak eta helburuak⁴

3. PROGRAMA: BERDINTASUNA GIZARTEA ETA EKONOMIA ERALDATZEKO BEHARREZKO BALIOA DELA AITORTZEA.	3.1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna gizarte-balioa dela onartzeko laguntza ematea.	3.1.1 Berdintasuna eta gizarte-aurrerapena lotzen dituzten pertsonen kopurua handitzea. 3.1.2 Emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeria gizarte-arazo garrantzitsutzat hartzen duten pertsonen kopurua handitzea. 3.1.3 Emakumei eta gizonari bizitzako hainbat arlotan rol eta estereotipo bereziak esleitzen dizkieten ume, gazte eta helduen kopurua gutxitzea. 3.1.4 Berdintasuna gizarte-balio modura sustatzearekin konpromisoa duten komunikabideen kopurua handitzea. 3.1.5 Gizarte-komunikabideetan neskatoen, mutikoen, gazteen eta helduen presentzia orekatua eta aniztasuneko eta estereotipo sexistarik gabeko irudia sustatzen duten programen eta edukien kopurua handitzea bizitza sozialeko arlo guztietan.
	3.2. Herritartasun-eskubideen erabilera bultzatzea, hezkidetzaren bidez.	3.2.3 Hezkuntza-sistema egituraz, pertsonaz eta programaz hornitzea, hezkidetzan oinarritutako eskolaren eredia modu koordinatuan sustatzeko.
	3.4. Antolaketa-erakunde eta enpresaren kultura berdintasunaren alde kokatzea.	3.3.1 Kultura eta enpresa-praktikak berdintasunerantz aldatzeko ikuspegia txertatzen duten berdintasun-planak dituzten erakunde publiko, gizarte-agente, enpresa eta erakunde pribatuaren kopurua handitzea. 3.3.2 Hitzarmen kolektiboetan, enpresa-itunetan edota funtzio publikoaren arloko akordioetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa sartzen duten enpresen eta erakunde publikoen kopurua areagotzea. 3.3.3 Genero-ikuspegia duten kudeaketa aurreratuak dituzten sistemak txertatzen dituzten erakunde publiko, gizarte-agente, enpresa eta erakunde pribatuaren kopurua handitzea. 3.3.4 Berdintasunera bideratutako aldaketarako gogoeta- eta eragin-guneetan parte hartzen duten erakundearen eta enpresaren kopurua handitzea.
4. PROGRAMA: AUTONOMIA EKONOMIKOA EMAKUMEENTZAT.	4.1. Lan gehiago eta hobeak sortzea.	4.1.4 Zaintzarekin lotutako enplegu-sorguneak erabat garatzea, sektore horretan kalitatezko enplegua sortuz. 4.1.7 Emakumeen eta gizonen batez besteko urteko soldata gordinen arteko aldea txikitzea, batez ere alde handiena duten sektoreetan.
	4.2. Pobreziaren feminizazioa murriztea.	4.2.3 Erakundeek eskainitako erantzunak eta baliabideak (zerbitzu sozialak, ekonomikoak, osasuna, hezkuntza, kultura, enplegua, justizia, segurtasuna eta etxebizitza) pobreziako eta/edo bazterketako arriskuan edo egoeran dauden edota beharizan bereziak dituzten emakumeen beharretara hobeto egokitzea.
5. PROGRAMA: ZAIKETEEN EKONOMIA FEMINISTA.	5.1. Zaintza bizitzaren jasangarritasunerako ezinbesteko baldintza dela sozialki onartzea.	5.1.1 Zaintza-lanak naturalki emakumeen ardura direla ukatzen duten eta horiek gizarte-premia bat direla eta horiek hornitzeko gizonak, erakundeak, enpresak eta erakunde publikoak eta gizarte zibila inplikatzeko beharrezkoa dela ulertzen duten gazteen eta helduen kopurua handitzea. 5.1.2 Eredu maskulino tradizionala zalantzan jartzen duten eta berdintasunarekin koherenteak diren eta zaintza-lanekiko konpromisoa duten jarrera eta portaerak dituzten gizon gazte eta helduen kopurua handitzea. 5.1.3 Gaur egun zaintzarako dagoen arreta-eredua hazten ari den zaintzen askotariko eskarira egokitzea aztertzea, erantzuna hobetzeko xedez, erantzunkidetasuneko eta zaintza-lanen onarpen sozial eta ekonomikoko ikuspegi batetik. 5.1.4 Eztabaida publikoa sustatzea, zertarako eta, gaur egungo eredu ekonomikoaren bidez, bizitzaren jasangarritasunaren oinarritutako garapen-eredu bat bultzatzeko.
	5.3. Zaintzen antolakuntza sozial berri bat babestea, horien gaineko ardurak birbanatzeko.	5.3.1 Generoen arteko desoreka murriztea emakumeek eta gizonen ordaindu gabeko zaintza-lanetan ematen duten denboran. 5.3.2 Haur eta gazteek zaintza-lanak egiten ematen duten denbora handitzea, mutilei arreta berezia jarritz. 5.3.3 Bateratze erantzunkideko neurriak heltzen dieten gizonen kopurua handitzea. 5.3.4 Bateratze-neurriak heltzeko gizonen eta emakumeen hautematen duten zailtasun-maila

⁴Erakunde guztien eskumenekoak diren helburuak nabarmentzen dira, baita Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren eskumen espezifikoak diren helburuak ere.



		murritzeta. 5.3.5 Amatasuneko eta aitatasuneko baimenak parekatzeko aukera sustatzea, berdinak eta besterenezinak izan daitezten. 5.3.7 Administrazio eta enpresa publikoek hartutako bateratze erantzunkideko neurrien kopurua handitzea. 5.3.9 Herritarrei zuzendutako zerbitzu publikoen ordutegi-malgutasuna handitzea. 5.3.10 Bateratze erantzunkidea eta pertsonen autonomia erraztuko duten hirigintza-plangintzako eta etxebizitzaren, gune publikoen eta garraio-bide jasangarrien diseinuko irizpideak aplikatzea.
III. ARDATZA: Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak lortzeko Programak eta Helburuak⁵		
6. PROGRAMA: SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA.	6.1. Indarkeria estrukturala eta kulturala murritzeta.	6.1.1 Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde dauden eta hori sustatzen duten pertsonak gero eta gehiago izatea, batik bat adingabeen arduratzen direnak, edo adingabeentzako eredu direnak. 6.1.2 Pertsonak euren sexuaren arabera maila handiagokoak edo txikiagokoak direla adierazten duen irudi eta eduki mediatiko oro kentzea, baita pertsonak sexu-objektu huts gisa aurkezten dituztenak edota emakumeen aurkako indarkeria justifikatzen, hutsaltzen edota bultzatzen dutenak ere, hedabideetan agertzearen ondorioz beriz biktimizatzea saihestuz. 6.1.3 Emakumeen kontrako indarkeriaren informazio-trataera hobetzea, genero-desberdintasuna indarkeria sortzen duen elementu gisa ikus eta aurkez dadin, eta emakumeak borrokaren eragile aktibo gisa. 6.1.4 Desberdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren arteko lotura ikusarazten duten programetan eta jardueretan parte hartzen duten edo hura prebenitzeko ahaleginak egiten dituzten eta gatazkak indarkeriarik gabe konpontzea sustatzen duten pertsonen, batez ere mutilen eta gizonen, kopurua areagotzea. 6.1.5 Emakumeen aurkako indarkeria motei eta horiek desberdinkeriarekin duten harremanari buruzko gizarte-pertzepzioa areagotzea, batik bat indarkeriaren modu zorrotz eta ezkutukoenei buruzkoa.
	6.2. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazioa, ikerketa eta prestakuntza hobetzea.	6.2.1 Informazioa biltzeko eta homogeneizatzeko sistemak hobetzea, EAEn gertatutako emakumeen kontrako indarkeria kasuei buruzko datu eguneratuak izateko eta gai horretan parte-hartze publikoa hobetzeko. 6.2.2 Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko eta haren adierazpenei buruzko jakintza hobetzea. 6.2.4 Indarkeriaren kontzeptualizazioari eta esku-hartzeetan horrek dituen ondorioei buruzko hausnarketa bultzatzea, indarkeria mota berrietan arreta berezia jarritz. 6.2.5 Bermatzea emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta ematen dieten profesionalen prestakuntza jasangarria, nahikoa eta eremu eta ardura-maila guztietara egokitutakoa izatea. 6.2.6 Beren esku-hartzean emakumeen ahalduztze pertsonala eta kaltea konpontzearen kontzeptua txertatzeko behar besteko trebakuntza duten profesionalen kopurua handitzea.
	6.3. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa sustatzea eta sendotzea.	6.3.4 Emakumeen kontrako indarkeriaren arloko prebentzio- eta arreta-programen eta -neurrien eraginkortasuna hobetzea.
7. PROGRAMA: KALTEA DETEKTATZEA, ARTATZEA ETA KONPONTZEA.	7.1. Emakumeen aurkako indarkeriaren detekzio goiztiarra handitzea.	7.1.1 Emakumeen aurkako indarkeriaren detekzio goiztiarrean era proaktiboan eta ezarritako protokoloen arabera jardungo duten profesionalak gehitzea (hezkuntza-, osasun-, polizia-, epaitegi-, lan- eta gizarte-sisteman). 7.1.2 Esku-hartzeko eremu guztietan indarkeriaren detekzio goiztiarra handitzea, indarkeria psikologikoan arreta berezia jarritz. 7.1.3 Informazio egokia jasotzen duten emakume biktimen kopurua handitzea, arreta integraleko prozesuaren aurretik, bitartean eta ondoren bere itxaropenei egokitutako erabakiak hartu ahal izan ditzaizen. 7.1.4 Edozer motatako indarkeria jasan duten emakumeak, zerbitzuak eta baliabideak goiz erabiltzea erabakitzen dutenak, gehitzea, zerbitzuak eta baliabideak erabiltzeko zailtasun handienak dituztenengan arreta berezia jarritz, haietako informazioa areagotuz eta eskuragarriago jarritz.

⁵Erakunde guztien eskumenekoak diren helburuak nabarmentzen dira, baita Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren eskumen espezifikoak diren helburuak ere.



8. PROGRAMA: ERAKUNDE ARTEKO KOORDINAZIOA.	7.2. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta integrala bermatzea, ahaldundutzearen ikuspegitik, esku-hartze horretan nazioarteko estandarrekin bat eginez.	7.2.1 Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko baliabideen kalitatean, sarbidean eta homikuntzan lurraldeen eta udalen arteko aldeak murriztea, batik bat landa-eremuko udalerrietan. 7.2.2 EAEn dauden berariazko baliabide eta zerbitzuek gizakien salerosketaren biktimei direla-eta artatzen dituzten emakumeen eta neskatuen kopurua handitzea. 7.2.3 Beren lantokian sexu-jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren aurkako prebentzio-eta laguntza-protokoloen estaldura duten pertsonen kopurua areagotzea. 7.2.4 Arriskuan dauden taldeetan egoteagatik sortutako egoerei erantzuteko behar adinako baliabideak dituzten arreta-zerbitzuak gehitzea, ikuspegi intersektionaletik. 7.2.5 Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei diren seme-alaben berariazko premiak betetzeko baliabideak dituzten arreta-zerbitzuen kopurua handitzea, ikuspegi intersektionaletik. 7.2.8 Behar duten kasuetan, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei etxebizitza bat izan dezaten bermatzea, berariaz egokigarritasunaren printzipioa erabiliz. 7.2.10 Sexu-indarkeriako kasuen aurreko arreta emateko sistemaren erantzuna hobetzea.
	7.3. Kaltearen ordaina jasotzeko eskubidea bermatzea, hala norbanakoarena nola kolektiboa.	7.3.1 Biktimak eta haien seme-alabak erabat osatzen laguntzeko baliabide publikoak ugaritzea, haietako bakoitzaren eta indarkeriak haiengan dituen ondorioen aniztasuna onartuz. 7.3.2 Emakumeen aurkako indarkeriaren gaitzespena, biktimganako errespetua —haien ahotik kontatuz, egia zabaltzen dela bermatzeko— eta bizitakoaren gizarte-onarpena —berriz biktimizatzea saihestuz— adierazten duten ekintza publikoen kopurua handitzea. 7.3.3 Kaltea errepika ez dadila bermatzeko formulak aztertzea, arreta eragilean jarritz, emakume guztiek indarkeriarik gabeko bizitza izatea bermatzeko.
	8.1. EAEn emakumeen aurkako indarkeriari heltzen dioten erakundearen arteko esku-hartze koordinatua sustatzea.	8.1.1 EAEn emakumeen aurkako indarkeriaren arloan dagoen araudia errealitate horri erabat ekiteko behar diren aurrerapen eta erronka berriei bat etorritasuna. 8.1.2 Indarrean dauden erakunde arteko koordinazioak akordioak emakumeen aurkako indarkeriaren arloko araudiari, teknikari eta gizarteari buruzko aldaketei egokitzea. 8.1.3 Emakumeen kontrako indarkeria-kasuetarako prebentzio- eta arreta-protokoloak, egoera ezberdinetara egokitututa daudenak: horrelako protokoloen estaldura duten biztanleen kopurua gehitzea.

3

SAILAREN
ESTRATEGIKOA

PLANGINTZA

3.1. DIAGNOSTIKOAREN DATU GARRANTZITSUAK

3.1.1. GOBERNU ONA

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak gobernu onerako duen konpromiso-mailaren diagnostikoa egiteko orduan, honako auzi hauek aztertu dira programa bakoitzerako (VII. Planean eta haren adierazleetan gobernu onerako aurreikusitako neurriekin korrelatiboak):

I. PROGRAMA: KONPROMISO POLITIKOA

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren konpromiso politikoaren diagnostiko xehatua egin da, eta honako alderdi hauek aztertu dira:

Alderdi garrantzitsuak

Berdintasunerako politikak garatzeko **aurrekontua** apur bat handiagotu da aurreko legegintzaldian eta XI. legegintzaldiaren hasieran; izan ere, aurrekontua Berdintasunerako Administrazio-unitateko posturako baliabidean ia erabat kontzentratuta egotetik beste berdintasun-partida espezifiko batzuk ere barne hartzera aldatu da. Horrela, berdintasun-arloan gauzatutako aurrekontuak 48.790 € izatetik 71.212 € izatera aldatu dira 2015etik 2017ra. Esparru honetan egin diren aurrerapenen artean, 6.000 euroko partida zehatz bat txertatu da, 2017ko aurrekontuetatik, Berdintasun Unitateko jarduketak gauzatzeko, eta 200.000 euroko berdintasunerako laguntza zehatzen Agindu bat sortzeko⁶ (40.000 € 2017an eta 160.000 € 2018rako aurreikusita)⁷

Edonola ere, aurrekontu hori aurrekontu osoaren % 1etik behera dago oraindik eta, beraz, legegintzaldi honetan emakumeen eta gizonen berdintasunera bideratutako aurrekontua handitzea eta hura ikusgai egitea izango da erronka.

⁶ Dirulaguntzak emateko arauak ezarri eta deialdia egiten duen Agindua, 2017ko ekitaldirako, udal-plangintzan eta hirigintzan genero-ikuspegia integratzeko.

⁷ Iturria: «Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruarekin zerikusia duten Eusko Jaurlaritzako sailen eta sail horietako organismo autonomo eta erakunde publikoen jardueraren jarraipena», 2015. eta 2016. urteei buruz (Emakunde). 2017. urteko datuak Sailak berak helarazi ditu.



► Berdintasunarekin lotuta **Sailak** egindako plangintzari dagokionez, azpimarratzekoa da 3 legegintzaldi-plan eta urteko 11 plan onetsi direla orain arte eta, halaber, 2005ean eta 2006an Ekintza Positiboko Planean bi ekintza-proposamen ere egin zirela. Edonola ere, nabarmendu egin behar da Sail honen eskumen-esparruak aldatu egin direla aipaturiko legegintzaldi guztietan⁸. Urteak igaro ahala, hobekuntzak sartu dira plangintzan: konpromiso berriak zehaztu eta hartzeaz gain, dokumentua, proposamenak, metodologia eta koordinazioa argitu egin dira. Bestalde, aipatzekoa da Sailari atxikitako sozietate publiko eta erakunde atxiki guztiek beren berdintasun-planak dituztela gaur egun.

Legegintzaldi honetan, plangintza zehatzagoak eta argiagoak egitea izango da erronka, konpromiso zehatzak eta baliabideak barne hartuko dituztenak, eta parte-hartze tekniko-politiko handiagoa izango dutenak.

► Azkenik, **berdintasunerako administrazio-unitateak** sortzeari eta indartzeari dagokionez, nabarmendu behar da Sailak behar bezala betetzen duela azaroaren 27ko 213/2007 Dekretua. Dekretu horren bitartez, Eusko Jaurlaritzako sailetan, haren organismo autonomoetan eta erakunde publikoetan berdintasun-politikak bultzatu eta koordinatzeko ardura duten administrazio-unitateak arautzen dira.

Edonola ere, hobetu beharreko eremuak hauteman dira berdintasuneko teknikarien egoerari eta mailari dagokionez eta horiek ikusgai egiteari dagokionez.

⁸ Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Dokumentu-Programa X. legegintzaldirako. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Ekonomia Saila/Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Dokumentua-Programa IX. legegintzaldirako. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila/Ingurumen eta Lurralde Plangintza Sailaren Berdintasun Politikako 2007-2009 Dokumentu Pragmatikoa.

II. PROGRAMA: BERDINTASUNERAKO TREBAKUNTZA.

Alderdi garrantzitsuak

► Saileko langileek berdintasunaren arloan duten trebakuntza-mailaren diagnostiko xehatua egin da, eta honako alderdi hauek aztertu dira:

	2016	2017
IVAP-EN PRESAKUNTZA OROKORRA		
Emakumeak	3	21
Gizonak	0	9
Guztira	3	30
SAILAK SUSTATUTAKO SEKTORIALA		
Emakumeak		34
Gizonak		9
Guztira		43

Parte hartu duten pertsonen perfila emakume teknikariena da batik bat. Berdintasun-arloko prestakuntza sektoriala azpimarratu behar da, lehenengo aldiz 2017an sustatua. Zentzu horretan, Saileko langileen eskumen sektorialetarako egokia izango den prestakuntza zehatza sustatzen jarraitzea da Legealdi honetako erronka, baita langileen prestakuntza erraztuko duten jarduketekin jarraitzea eta berdintasunaren esparruan prestakuntza duten pertsonen kopurua handitzea ere, maila teknikoan nahiz politikoan.



III. PROGRAMA: GENERO-IKUSPEGIA LAN-PROZEDURETAN.

Sailaren lan-prozeduretan genero-ikuspegia txertatuta ote dagoen aztertzeko diagnostiko xehatua egin da, eta honako alderdi hauek aztertu dira:

Alderdi garrantzitsuak

- Genero-ikuspegia **estatistiketan eta azterlanetan** txertatzeari dagokionez, esan behar da Saileko estatistika ofizialetan sistematikoki txertatzen eta bereizten dela sexuaren aldagaia, eta beste desberdintasun-egoera batzuekiko gurutzaketa edo genero-arraileen identifikazioa puntualagoa da; era berean, ez dago generoaren adierazlerik. Edonola ere, azpimarratu behar da Lurralde Plangintza eta Ingurumenaren esparruak gaur egun ez duela pertsonen buruzko eragiketa estatistikorik; izan ere, horiek guztiek ingurumeneko aldagaiei (airea, ura, berotegi-efektuko gasak...) eta lurzoruko aldagaiei (gainazala, lurzoruen kalifikazioa...) egiten diete erreferentzia.

Genero-ikuspegia estatistiketan eta azterlanetan txertatzeko aurrerapausoak ematen jarraitzea izango da Legegintzaldi honetako erronka, hobekuntzak, azterketa zehatzen premiak eta genero-adierazleak identifikatuz.

- Enplegu publikora **sartu eta bertan mailaz igotzeko hautaketa-prozesuetan** berdintasunarekin lotutako edukiak txertatzeari dagokionez, nabarmendu behar da Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak duela, Eusko Jaurlaritzaren barruan, enplegu publikora iristeko hautaketa-prozesuen eskumena. Sailaren ardura hauetara mugatzen da: barne-promozioko prozesuak, zerbitzu-eginkizunen horniketa eta izendapen askeko postuak.

- Berdintasuna **komunikazioan** txertatzeari dagokionez, azpimarratu behar da sexuaren arabera banatutako datuak barne hartzen dituzten prentsaurrekoen ehunekoa % 5ekoa dela eta, beraz, erronka ehuneko hori handitzea izango dela.

Horrenbestez, sexuaren arabera banatutako datuak dituzten prentsaurrekoen ehunekoa handitzea izango da erronka.

- **Araudian berdintasun-printzipioa txertatzearekin** lotuta, «*Genero-eragina aurretiaz ebaluatzeko eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko jarraibideak onartzen dituen*» Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko 40/2012 Erabakian ezarritakoari lotzen zaio Sail hau.

Edonola ere, hobetu daitezkeen esparruak detektatu dira prozedura eta haren edukia ezagutzearekin lotuta eta, horregatik, inpaktua generoaren arabera analizatzeko prozesuak hobetzeko eta egokiro txertatzeko erronka izango dugu Legegintzaldi honetan.

- Sailaren **aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzeari** dagokionez, berriz, nabarmendu behar da azken ekitaldian, 2018ko aurrekontuetan, Sailaren aurrekontu-programa guztietan egin dela generoaren arabeko inpaktuaren alde aurreko balioespenaren analisia. 2019ko aurrekontuen (19A-Gen) azterketa-prozesua abian jarri da, baina oraindik ere prestakuntzan lan egin behar da, baita Zuzendaritza desberdinen langile tekniko-politikoaren partaidetza handitzeko lan-prozesuen artikulazioan ere. **Lan-prozesuak sortzea da erronka, eta hori aldaketetan islatu dadila, betiere genero-ikuspegia aurrekontu-memoretan txertatzeko eta berdintasunean egindako gastua ikusgai egiteko helburuarekin.**

► Genero-ikuspegia Sailaren **sektorekako eta zeharkako planetan** txertatzeari dagokionez, berdintasun-unitateak edo berdintasuneko beste pertsona aditu batzuek parte hartzen duten planen ehunekoa handitzea izango da Legegintzaldiko erronka.

► **Kontratuetan, dirulaguntzetan eta hitzarmenetan** berdintasunerako klausulak txertatzeari buruz, esan behar da Sailak aurreko legegintzaldian eta XI. Legegintzaldiaren hasieran egindako kontratazio guztietan sartu direla berdintasunerako klausulak, batez ere kontratua gauzatzeko baldintza bereziei buruzkoak. Nolanahi ere, berdintasunerako klausulak barne hartzen dituzten kontratuen kopurua igo egin da zertxobait (xedean, kontratua deuseztatu izanaren arrazoieta eta hizkuntzaren erabilera ez-sexistaren betebeharra txertatzean). Era berean, Sailak egindako dirulaguntzen % 30ek, gutxi gorabehera, aipatutako berdintasunerako klausulak barne hartzen dituzte; hitzarmenetan, berdintasunerako klausulen kopurua oso txikia da.

Horrenbestez, berdintasuneko klausulak barne hartzen dituzten kontratuen, dirulaguntzen eta hitzarmenen kopurua handitzea eta horien jarraipena egiteko prozedurak ezartzea izango da legegintzaldi honetako erronka.

IV. PROGRAMA: KOORDINAZIOA ETA ELKARLANA.

Sailaren koordinazio- eta lankidetzeta-prozesuen diagnostiko xehatua egin da, berdintasun-politikak ezartzeko honako auzi hauek aztertuta:

Alderdi garrantzitsuak

► Berdintasunerako koordinazioa eta lankidetzeta indartzeari dagokionez, esan behar da Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak Berdintasunerako Sailarteko Talde Tekniko bat (STT) duela. Zuzendaritza guztiek parte hartzen dute bertan, baita sozietate publikoek eta Sailari atxikitako erakundeek (URA, IHOBE, VISESA eta ALOKABIDE) ere. Maila politikoan ere badu ordezkartza lantalde horrek, eta nahiko lan- eta koordinazio-dinamika sendoa du.

Edonola ere, aurrera egiten jarraitzea eta STT hori indartzen jarraitzea da erronka, hura ikusgai eginez, baliabideak eskainiz eta taldearen eta taldeko kideen koordinazioa eta maila hobetuz.



V. PROGRAMA: PARTE-HARTZEA ETA ERAGINA.

Sailaren zuzendaritza-organoetan eta partaidetza-espazioetan emakumeen eta gizonen partaidetza-prozesuari eta intzidentziari buruzko diagnostiko xehatua egin da, eta honako alderdi hauek aztertu dira:

Alderdi garrantzitsuak

- Genero-ikuspegia partaidetza- eta kontsulta-eremuetan txertatzeari dagokionez, esan behar da aurreko Legegintzaldi Planaren jarduketaren artean eta gaur egungo plangintzen artean genero-ikuspegiaren txertaketa lantzen ari dela, emakumeen parte-hartzea areagotzeko neurriak txertatuz edo prozesuetara emakume-elkarteak eta/edo elkarte feministak gehituz.

Edonola ere, legegintzaldian Sailak abiaraziko dituen partaidetza-prozesu guztietan genero-ikuspegia txertatzeko formula berrietan aurrera egin behar dugu ezinbestean.

3.1.2. BERDINTASUNAREN ALORREAN ESKU HARTZEKO ARDATZAK

INGURUMENA

ALDERDI GARRANTZITSUAK⁹

» Gizonezkoek eta emakumezkoek eragin-truke desberdina dute ingurumenarekiko, kontsumo-ohitura desberdinak dituztelako baliabideekiko (batez ere, uraren, energiaren eta elikagaien kontsumoari eta hondakinen trataerari dagokionez) eta mugikortasunaren eta garraioaren erabileraren inguruan bestelako jokaerak dituztelako; gainera, ez dute harreman berdina ingurumenarekin, gizarte honetan nagusitzen diren genero-rolak baldintzatzen baitituzte harreman horiek. Hori dela-eta, jakintza eta ikuspegia ez ezik, jarrera ere desberdina izaten da emakumeen eta gizonen artean.

» Bestalde, desberdintasunak daude ingurumenaren arloan erabakiak hartzeko eremuetan emakumeek duten partaidetza eta horri buruzko informazioaren sorrerak, askotan, ez ditu kontuan hartzen genero-faktoreak eta bereziki emakumeengan eragiten duten egoera eta premia zehatzak.

Egindako diagnostikoaren emaitza gisa, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak hauteman dira honako esparru hauetan:

1. Kontsumo-ohiturak: Gure etxeetan ditugun ohiturek eta eguneroko bizimoduan gauzatzen ditugun ekintzek zuzeneko ondorioak dituzte ingurumenean eragiten dugun inpaktuan.

- Ur-kontsumoa aurrezteko ohiturak eta gailuak. Emakumeek ura aurrezteko eta birziklatzeko ohitura handiagoa dute gizonen aldean. Kontrara, gizonezkoen proportzio handiagoak erabiltzen ditu aurrezteko gailuak kaniletan eta zisternetan.
- Energiaren kontsumoari dagokionez ere, gizonek joera handiagoa dute energiaren kontsumoan eraginkortasun handiagoa ahalbidetzen duten elementuak instalatzeko.
- Elikadura-ohiturei dagokionez, egiaztatuta dago, joera orokor gisa, emakumeek fruta, lekale, barazki eta labore gehiago jaten dutela, eta gizonek, aldiz, haragia eta proteinetan aberatsak diren beste produktu batzuk kontsumitzen dituztela neurri handiagoan, eta edari prozesatu eta botilaratu gehiago edaten dutela.
- EAEko hondakinen tratamenduari dagokionez, gizonek produktu organikoak birziklatzeko joera zertxobait handiagoa dute. Emakumeek ehunak eta oinetakoak birziklatzeko orduan bakarrik gaintitzen dituzte gizonezkoak.

2. Garraioa:

- Gizonen artean ohikoagoa da norbere erabilerarako ibilgailu bat izatea. Gizonen joan-etorri gehiago egiten dituzte ibilgailu pribatuan, eta familia-ibilgailua beren erabilerarako monopolizatzen joera handiagoa dago. Erregai-kontsumo baxuko ibilgailuak erosteko ohiturak aldatzeko joera handiagoa dute; bestalde, horrek garraio publikoari

⁹ Iturria: «Generoaren araberako eraginaren ebaluazioa ingurumenean», Emakunde.



murritzaketak ezartzeko prestutasun txikiagoa azaltzen du.

- Emakumeek gizonen baino joan-etorri gehiago egiten dituzte, horretarako arrazoi gehiago dituztelako; gainera, garraio publikoaren erabilera-tasa handiagoa dute. Gainera, emakumeek oinez egiten dituzten lekualdatzeak — auzoen eskalako lekualdatze labur gehiago egiten dutelako— askoz gehiago dira gizonenekin alderatuta.

3. **Pertzepzioa eta jarrera:** Ingurumena babestearen alde egindako ahaleginen **pertzepzioari** dagokionez, emakumeek uste dute gizonen baino ekimen jasagarri gehiago ari direla gauzatzen. Emakumezkoek kezka handiena sortzen dieten tokiko ingurumen-arazo nagusien artean daude zarata edo kutsadura akustikoa, hondakinak eta zaborrak eta airearen kutsadura. Gizonetzkoek eta emakumezkoek **jarrera** desberdina erakusten dute ingurumenari mesede egiteko neurriak hartzeari buruz: emakumeak prestago daude garapen jasagarrian eragin esanguratsua duten zenbait baliabideren kontsumo eta kudeaketa arduratsuagoaren aldeko murritzaketak eta obligazioak ezartzeko.

4. Presentzia ingurumenaren ekoizpen-sektorean:

- Emakumeek energiaren sektorean duten pisua oso arina da (sektorean okupatzen diren pertsona guztien % 18,6 baino ez dira).
- **Uraren hornidurarekin** zerikusia duten lanak egiten dituzten emakumeen zenbatekoak energia berritzagarrien sektorean enplegatzen direnen maila berdintsua du: % 17,2.
- **Bioteknologiaren** kasuan, ikerlari, teknikari eta laguntzaileen postuak betetzen dituzten pertsonen artean, emakumeen ehunekoa gizonena baino nabarmen handiagoa da (% 62,3 emakumeak eta % 37,7 gizonak).
- **Basoko eta natura-inguruneen jarduerak.** Sektore horietan emakumeek duten okupazio-mailaren berri emango diguten zifrarik ez dugunez, argigarria da ikustea 2011ko kontratazio-datuaren arabera, pertsona kontratatatu guztietatik, emakumeen proportzioa % 2,1ekoa izan zela Bizkaian, % 7,5ekoa Gipuzkoan eta % 18,5ekoa Araban¹⁰.
- **Garraioa eta mugikortasuna:** gizonak dira nagusi, eta emakumeen presentzia oso eskasa da.

5. Osasuna:

Ingurumenak pertsonen osasunean izan ditzakeen eragin kaltegarriak ez dute efektu berdina pertsonen sexuaren arabera. Hala, ingurumenean dauden edo giroan transmititzen diren produktu edo substantzia jakin batzuen esposizio-mailaren edo lanpostu mota dela-eta, substantzia horiekiko kontaktu-mailaren arabera, gizonen eta emakumeen jasan ditzaketen ondorioek eragin desberdinak izango dituzte bi sexuen artean dauden alde fisikoak, biologikoak, genetikoak edo hormonalak direla bide.

Substantzia kimiko eta/edo toxikoak duten arriskuaren prebentzioa egitean, oso gutxitan hartzen da kontuan pertsonak gizonak edo emakumeak diren, nahiz eta osasunean ondorio desberdinak nozitu ditzaketen. Airetik transmititzen diren substantzia kaltegarri asko arriskutsuagoak izan daitezke emakumeen osasunerako —esate baterako, ibilgailuak, industriak edo eraikinak sorburu dituzten gasak eta partikula kutsatzaileak, nekazaritza-inguruneetan edo hirietako eraikinak desinfektatzeko erabiltzen diren intsektizidak edo pestizidak, eta eguneroko bizimoduan inguruan izan ditzakegun beste hainbat konposatu, hala nola plastikoak, kosmetika-produktuak edo elikadura-katean existitzen diren PCBak (arrainetan edo itsaskietan)—. Arrisku handiago horren zergatia honako hau da: partikula edo substantzia horietako batzuek gorputzeko hormona-sistema aldarazteko

¹⁰ Okupazioen behategia: Bizkaiko lan-merkatuari buruzko txostena, 2011; Gipuzkoakoa; Arabakoa. Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa [Bizkaiko Okupazio Datuak \(2011\)](#); [Gipuzkoako Okupazio Datuak \(2011\)](#); [Arabako Okupazio Datuak \(2011\)](#)

ahalmena dute, eta horrek eragin handiagoa du emakumeengan, beste arrazoi batzuen artean, ziklo menstrual delako medio jasaten dituzten hormona-aldaketengatik.

Zenbait produktu kimiko agresiborekiko kontaktuak —aerosolak, lixibak, deskoipetzailleak, parabeneak— edota erradiazio ionizatzaileen edo ez-ionizatzaileen eraginpean egoteak, emakumeen **lanbide motaren edo lan-baldintzen** arabera, arrisku handiagoa ekar lezake emakume horien osasunerako. Zenbait produkzio-sektoreen feminizazioak (osasungintza, estetika eta ile-apaindegia, nekazaritza edo garbiketa-lanak, beste batzuen artean), lagundu egiten du, dudarik gabe, okupazio horiek emakumeen osasunean eragin ditzaketen ondorio negatiboak areagotzen. Erradiazio elektromagnetikoen pean lan egitearen eta bularreko minbiziaren arteko erlazioari buruzko azterlan bateko¹¹ datuen arabera, gaixotasun hori noizteko arriskua handiagoa da zenbait lanbide-esparrutan, hala nola osasungintzan eta farmazian (irrada ionizatzaileen pean egoteaz gainera, konposatu kimikoekin eta oxido etilenoarekin kontaktuan daude), irakaskuntzan (sedentismoa eta estresa) edo ile-apaindegian eta estetikan (produktu kimikoekin kontaktuan). Sektore horietan, hain zuzen ere, emakume askok egiten dute lan EAEn, non hezkuntza-osasungintza multzoan, pertsona okupatu guztien % 70,4 emakumeak baitira; farmaziako produktuekin lotura duen industrian, berriz, sektorean okupatzen diren pertsona guztien ia % 54 emakumezkoak dira.

Beste patologia posible batzuk produktu kimikoekin izan ohi duten kontaktutik ondorioztatzen dira, emakumeek, izan ere denbora gehiago eskaintzen baitute **etxeko lanak** egitera (emakumeek 3:33' eta gizonek 1:29')¹², baita hainbat sektore feminizatu direlako ere, hala nola osasungintza, estetika eta ile-apaindegia, eta garbiketa-lanak; horrela ulertzen da sektore horietan lan egiten duten emakumeek gizonek baino aukera gehiago izatea arnas arazoak (bronkioetako asma, bronkitisa, etab.), azaleko alergia (dermatitisa) edo produktu horiekiko sentsibilitate-galera (sentsibilitate kimiko anizkoitza) noizteko. EAEn asma diagnostikatu zitzaizen alta guztietatik % 63,6 emakumeak izan ziren; bronkitisarekin edo bronkitis akutuarekin zerikusia izan dutenak, berriz, % 50,4 izan ziren.

Hainbat ikerketak erakusten dute¹³ aldeak daudela jakintza zientifikoan emakumeen eta gizonen egoerari dagokionez laneko osasunaren eremuan; gutxiago dakigu osasun-determinantei buruz emakumeen kasuan gizonen kasuan baino. Esate baterako, laneko ingurumenaren kasuan, betidanik uste izan da pestiziden eraginpean egotea gizonei eragiten zien arriskua zela; nolana ere, emakume baserritarren esposizioa aztertzen zuten azterlanetan ikusi zen hidrokarbono hidroklorinatuen kontzentrazioek kontzentrazio handiagoa zutela emakumeen gorputzean konposatu horiek disolbagarriak direlako koipean eta emakumeek adipositate handiagoa duelako.

Lanbide- eta ingurumen-osasunaren segurtasunaren alorrean, OPEren dokumentuan adierazten da emakumeak ez direla sartuta egoten toxikologia-azterlanetan, eta sartuta daudenean, edo ez dela haien espezifikotasun biologikoa aintzat hartzen, edota haien ugalketa-potentzialari soilik jartzen zaiola arreta. Beste txosten batek zioen berunaren kontrako erregelamenduak adin emankorrean dauden emakumeak bakarrik babesten dituela; horrek esan nahi du gainerako emakumeen osasunerako arriskuak ez direla kontuan hartzen, ez eta gizonenak ere, ugalketako edo beste mota batekoak. Era berean, adierazi zuten

¹¹ Pollán Santamaría, Marina (2001) [Ocupación, exposición laboral a radiaciones electromagnéticas y cáncer de mama](#)

¹² Unitateak ordutan eta minututan.

¹³ «Género, salud y medio ambiente», Concepción Tomás Aznar andreak koordinatua.



emakumeen eta gizonen arteko ugalketakoak ez diren desberdintasun biologikoak hartu behar direla kontuan; izan ere, emakumeek gantz-ehun handiagoa dute, eta horrek areagotu egiten du gantzean disolbagarriak diren produktu kimikoen arriskua; horrez gain, emakumeen azala meheagoa denez eta metabolismo motelagoa duenez, desberdintasunak sortzen dira produktu kimikoen xurgapenean, metabolismoan eta irazpenean.

Airearen kutsadurak arnas arazoetan duen eragina ere ez da berdina gizonengan eta emakumeengan. Duela gutxi idatzitako artikulua baten arabera, afektazioa handiagoa da emakumeen kasuan gizonen kasuan baino, nahiz eta elkarketa horretan oinarririk ez dagoen, eta artikulua hartan proposatzen da genero-ikuspegia sartu behar dela ingurumenaren arloko epidemiologiaren azterketan; hortaz, datu biologikoak eta sozialak sexuaren arabera bereizi beharko dira, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak aztertu ahal izateko.

LURRALDE-PLANGINTZA, HIRIGINTZA ETA HIRI-BERRONERATZEA

ALDERDI GARRANTZITSUAK

Jarraian, genero-ikuspegia hirigintzan eta lurralde-antolamenduan txertatzeko orduan kontuan izan beharreko alderdiak xehatzen dira¹⁴:

Genero-rolek, ordaindu gabeko lanak eta sexuaren araberako lanaren banaketak gizonen eta emakumeek egiten duten hiriaren erabilera desberdinean duten inpaktua:

- Beren egunerokotasunean bereganatzen dituzten genero-rolen eraginez, pertsonen premia eta helburu desberdinak dituzte lurraldeari eta hiri-eremuari dagokienez. Ordaindu gabeko lana eta sexuaren araberako lanaren banaketa gako-kontzeptuak dira zentzu horretan.
- Denboraren erabilera desberdina gizonen eta emakumeen artean, gizonen eta emakumeek beren gain hartzen dituzten genero-rolak direla eta.
- Ordaindutako eta ordaindu gabeko lan-karga bikoitzak edo zaintzaren lan-kargak pertsona askoren premiak eta itxaropenak finkatzen ditu, gehienetan emakumeak, eremu publikoari, garraioari, ekipamenduei, lanpostuei eta merkataritzari, eta etxebizitzari dagokienez.
- Beste kontzeptu gako batzuen artean, *egunerokotasuna* eta *eginkizunen katea* ditugu. Egunerokotasunaren kontzeptuak eguneko, asteko, hilabeteko edo bizitza osoko denbora-zikloetan hiria erabiltzeko orduan sortzen diren erregularitasunak edo eginkizunen kateak ulertzea ahalbidetzen du. Hori oso garrantzitsua da lan-karga bikoitza gauzatzen duten pertsonentzat, egunerokotasuneko jarduerak eguneko aldizkakotasunak izaten baitituzte, baina baita astekoak edo hilekoak ere; gainera, eginkizunen kateak desberdinak izaten dira, askotan, asteko egun batean edo bestean. Horrez gain, pertsonen bizi-zikloak duela hamarkada gutxi baino askoz gehiago aldatzen dira orain, eta

¹⁴ «Genero-ikuspegia Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan. Ekintza-proposamenak». Zuzendaria: Inés Sanchez de Madariaga. Sustatzailea: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Saila.

modu desberdinean aldatzen dira gizonen eta emakumeen artean, genero-rolen emaitza gisa.

- Enplegua zaintzarekin bateratzen duten pertsonen egunerokotasuneko eginkizunen kate horietatik eratorritako hiriko premia zehatzak behar bezala islatzen dira hirigintzako esparru sektorialetan —mugikortasuna, azpiegiturak eta ekipamenduak, lantokiak eta merkataritza, etxebizitza, eremu publikoak—, eta horiek behar bezala hartu behar dira kontuan lurralde-plangintzan eta hirigintzan. Nazio Batuen eta Europako Batzordearen gisako nazioarteko erakundeek hirigintza eta lurralde-antolamendua adierazi dituzte emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez aurrera egiteko politika publikoaren funtsezko esparru gisa.

Gizonek eta emakumeek eremu publikoko eta garraioko segurtasunari dagokionez duten pertzepzio desberdina, eta horrek emakumeek hiri-ondasunak eta -zerbitzuak erabiltzeko orduan eragiten duen inpaktu negatiboa.

- Azterlan askok frogatzen duten moduan, emakumeek beren mugikortasuna eta hiriko espazioaren erabilera mugatzen dute segurtasunik sentitzen ez dutelako, eraso sexualak eta emakumeen kontrako beste indarkeria mota batzuk izateko arriskua dela eta.
- Azterlanen arabera, oso garrantzitsua da eremu bat segurutzat hartzeko modu subjektiboa, baita emakumeen beraien esperientzia hirian txertatzea ere.

Emakumeen pobrezia erlatiboa eta faktore horrek beste diskriminazio-ezaugarri batzuekin duen elkarrekintza: egoera zibilarekin lotutako familia-kargak (ama gurasobakarren eta pertsona bakarreko familien kasuan), arraza, adina, gaitasun funtzionala, genero-indarkeriaren biktimak.

- Emakumeek gizonek baino gaitasun ekonomiko txikiagoa dute, eta horrek hiri-ondasunak eta -zerbitzuak erabili ahal izateko aukerak murrizten ditu.
- Emakumeen gaitasun ekonomiko txikiagoak honako faktore hauetan du jatorria, besteak beste: generoaren araberrako soldata-arrailean; lan-merkatuetako bereizketa horizontalean, emakumeak prestigio gutxien duten eta gutxiago ordaintzen diren sektoreetan pilatzen baititu; segregazio bertikalean, maila eta soldata baxuko lanpostuetan pilatzen baititu, sektore guztietan; emakumeak lanaldi partzialeko behin-behineko lanpostuetan pilatzen dira; horien langabezia-tasa handiagoetan; bizitza osoan zehar izaten dituzten lanik gabeko denboraldi luzeagoetan, pertsona zaharren, adingabeen edo menderotasuna duten pertsonen zaintza-lanak bereganatzen dituztelako.
- Familiako buru diren emakumeek gain, bereziki zaurgarriak dira orobat genero-indarkeriaren biktimak, emakume zaharrak, emakume beltzak eta gaitasun funtzional murriztua duten emakumeak. Emakume horiek etxebizitzarekin, garraioarekin, eremu publikoarekin, lanpostuekin eta ekipamenduekin lotutako premia zehatzak izaten dituzte.



Emakumeek hiriko eraikuntzarekin eta lurralde-gobernuaren egiturekin lotutako lanpostuetan duten ordezkaritza baxua; eta generoaren ezagutza aditurik eza.

- Emakumeek oso ordezkaritza baxua dute hirigintzako, arkitekturako eta ingeniartzako lanpostuetan. Emakumeak erabakiak hartzeko gaitasun gutxi duten lanpostu ezegonkorretan pilatzen dira, eta horrek, lanbidea alde batera uztearekin batera, arkitekto eta hirigile emakume askoren errealitatea izaten jarraitzen du.
- Erabakiak hartzeko gaitasun profesionala duten emakumeen presentzia baxuak jardun profesionalean eragiten du, eta beraz, baita eraikitzen den horretan eta eraikitzeke moduan ere. Faktore horrek lanbidearen eraikuntza «maskulinoan» eragiten du, baita kulturaren, lehentasunetan, erantzun beharreko arazoetan eta horiei emandako erantzunetan ere.
- Agendetan eta kultura profesionalean aldaketak eragin daitezten, masa kritiko bat —emakumeen kopuru nahikoa— eta generoaren alorreko ezagutza aditua behar dira.

«Zaintzaren hirigintzarako» hiri-eredua

- Genero-ikuspegia lurralde- eta hiri-plangintzan txertatuz gero, eremu publikoak, ekipamenduak, etxebizitza eta abar beste modu batera pentsatzen dira, familiaren zaintzarekin lotutako eguneroko eginkizunak bete eta lan ordaindua ahalgin eta zailtasun gutxiagorekin egin ahal izateko moduan, hain zuzen ere; era berean, eremu publikoak eta garraioak seguruak izan behar dute, zaugarritasun-egoeran bizi diren emakumeen espazio- eta hiri-premiak —gaitasun ekonomikoarekin lotutako mugak barne— kontuan hartu behar dira, hala, herritar guztien bizi-kalitatea hobetuko duten lurralde eta hiri seguruagoak eta bidezkoagoak sortzeko.
- Gainera, emakumeek erabakiak hartzeko prozesuetan duten eragiteko gaitasuna bermatzea ere badu helburu generoa plangintzan txertatzeak. Horretarako, oso garrantzitsua da horiek erantzukizuneko lanpostuak lortu eta udalaz gaindiko nahiz udaleko plangintzan parte har dezatela sustatzea.
- Zaintza, proposamenak artikulatzen diren ardatz zentrala. Zaintzak lurraldearen plangintzan, eraikuntzan eta kudeaketan eragiten dituen ondorioetan oinarritzen diren proposamenak.
- Zaintzaren premiei hobekien erantzungo liekeen eredua honako hau izango litzateke: hiri konpaktu bat, nahiko trinkoa, distantzia laburrekoa eta gertukoa; garraio publikoaren sistema egokia, espazio publikoak eta garraiorako eremu seguruak eta kalitatezkoak dituen; erabileren nahasketa duena eta auzoetan ekipamendu-sistemak dituen; adingabeak eta mendeko pertsona zaharrak zaintzeko ekipamenduak dituen, betiko laguntza-, eskola-, osasun-, hezkuntza-, kirol- eta kultura-ekipamenduez gain. Lan ordaindua eta zaintza-lanak bateragarri egitea ahalbidetuko lukeen hiri bat izango litzateke, erantzukizun bikoitz hori beren gain hartzen duten pertsonen enplegu-lekuetara iristea erraztuko lieke-eta, baita bizitza sostengatzeko beharrezkoak diren ekipamenduetara ere, dagozkion denbora-tarteetan, erosotasun- eta segurtasun-baldintzetan, eta kostu ekonomiko onargarriekin.



Genero-ikuspegia txertatzeko funtsezko eremuak:

- Garraioa eta mugikortasuna.
- Gertuko hirigintza.
- Egunerokotasunean erabiltzeko ekipamenduak eta eremu publikoak.
- Segurtasuna.
- Etxebizitza.
- Landa-ingurunea.
- Parte-hartzea.
- Gizartean genero-berdintasunarekin lotutako sentsibilizazioa sustatzea.
- Generoaren ikuspegia hiri- eta lurralde-politiketan txertatzeko gaitasun lokala eta instituzionala sor dadila sustatzea.

ETXEBIZITZA

ALDERDI GARRANTZITSUAK

- Honako emaitza hauek atera dira Etxebide-Etxebizitzaren Euskal Zerbitzutik ateratako datuetatik¹⁵:

*Alokairu-erregimenean izena emanda dauden 49.169 espedienteetatik, 20.592tan emakume bat da titularra; 11.407an, berriz, titularrak gizon bat eta emakume bat dira, eta 17.170tan gizona da titularra. Hortaz, emakumeak dira errentamenduan izena emandako espedienteetan gehienak.

*Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroko 59.923 espedienteetatik, hau da, etxebizitza bat behar duten pertsonetatik, 24.754 emakumeak dira, 21.505 gizonak, eta 13.664 titulartasun partekatukoak. **Hortaz, etxebizitza behar dutenen artean emakumeak dira kolektibo nagusia.**

*Eskubide subjektiborako baldintzak betetzen dituzten 5.497 espedienteetatik, 2.633tan emakumea da titularra, 943tan gizona eta 1.921etan gizon bat eta emakume bat. **Hortaz, eskubide subjektiborako baldintzak betetzen dituzten espedienteen artean, gehienetan emakumea da titularra.**

*Desberdintasun nabarmenak daude, halaber, guraso bakarreko etxebizitzaren kopuruari dagokionez; horien artean emakumeak dira gehienak (etxebizitza erosteko nahiz alokatzeko orduan). Banaketa- eta dibortzio-kasuetan ere gehienetan emakumeak izaten dira alokairu-eskaera egiten dutenak, baita 70 urtetik gorako emakumeak ere (erosteko nahiz alokatzeko orduan).

Emakumeak genero-indarkeriaren biktimak gisa egiaztatzeari dagokionez, Etxebide zerbitzuak emandako datuen arabera, 2017ko abenduan, genero-indarkeriaren biktimak zirela frogatu zuten emakumeen espedienteen guztizko kopurua (alokairu-

¹⁵ 2017ko uztailaren 3an eguneratutako datuak.



erregimeneko etxebizitzak esleitzeko prozeduretan parte hartzen ari ziren espediente aktiboak, eskabideak izan zituzten udalerri guztietan) 760 izan zen guztira (156 Araban, 442 Bizkaian eta 162 Gipuzkoan).

Gainera, azpimarratu behar da genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeei dagozkien espedienteak salbuetsi egin direla, oro har, honako baldintza hauek betetzetik:

- Batetik, gutxieneko diru-sarreraren baldintza, martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren —babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neuriei buruzkoa— 19.1 artikulua amaieran eta 2006ko urriaren 4ko Aginduaren (aurrez aipatua) 7.3 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.
- Eta bestetik, parte hartu nahi den edozein udalerrian erroldatuta egoteko baldintza, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat etxebizitza-arloko ekintza positiboko neuriei buruzko Aginduaren 7.3 artikuluan (aurrez aipatua) xedatutakoari jarraikiz.

2017an 23 eskaera egin ziren, guztira, etxebizitzaren esleipen zuzenari dagokionez.

Azkenik, etxebizitza ez-androzentrikoa eta ez-hierarkikoa eraikitzeko diagnosi-elementu batzuk aipatuko ditugu:

Espazioa ez da neutroa:

- Etxebizitza izaten da lehen sozializazio-lekua eta, beraz, generoen arteko lehen harremanak gauzatzen diren lekua.
- Hura banatzeko, artikulatzeko eta hierarkizatze moduak argi eta garbi deskribatzen ditu zer nolako harremanak izan nahi diren; eta bertan bizi diren pertsonen garapena eta horien harremanak markatuko dituzte.

Lantokia/Atsedena- eta jolas-lekua.

- Etxebizitzaren banaketak eta diseinuak etxeko lanak eta zaintza-lanak berdintasunez egitea erraztu edo zaildu dezake.
- Ugalketa-lana etxebizitza barruan geratzen da, ikusezin.

BERDINTASUN-ARLOKO AGINDUAK

[illegible]

	4. ARAUDIAN BERDINTASUNAREN PRINTZIPIOA TXERTATZEA.	ZUZENDARITZA GUZTIAK							145				☐	☐	☒	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
	5. AURREKONTUETAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEA.	ZUZENDARITZA GUZTIAK							145.3				☐	☐	☒	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
	6. SEKTOREKAKO ETA ZEHARKAKO PLANETAN GENERO-IKUSPEGIA SARTZEA.	ZUZENDARITZA GUZTIAK							145				☐	☐	☒	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
	7. GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEA INGURUMEN-HEZKUNTZAKO POLITIKETAN: 7.1. Ekoetxeak zentroak. 7.2. Laguntza-aginduak. 7.3. Ingurugelak.	NATURA ONDARE ETA KLIMA ALDAKETA ZUZENDARITZA											☐	☐	☒	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
		IHOBE							46.7				☐	☐	☒	☐	☒	☐	☐	☒	☐	☐	☐	☐	☐
	8. GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEA LAG-ETAN, LURRALDE- ETA HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUAREN BESTE TRESNA BATZUETAN, ETA HIRI-BERRONERATZEKO PROZESUETAN. 8.1. LAGetan genero-ikuspegia txertatzen jarraitzea. 8.2. LPP eta LPSen berrikuspenek eta aldaketek genero-ikuspegia txertatzeko (edukian eta izapidetze-prozesuan) mekanismoak artikulatzea. 8.3. Udalei laguntzak eskatzen jarraitzea, genero-ikuspegia udal-plangintzan eta hirigintzan txerta dezaten. 8.4. Hiri-berroneratzearen prozesu guztietan genero-ikuspegia txertatzea.	LURRALDE PLANGINTZAREN SAILBURUORDETZA. LURRALDE PLANGINTZA, HIRIGINTZA ETA HIRI-BERRONERATZEAREN ZUZENDARITZA							47.1/47.2/48				☐	☐	☒	☐	☒	☒	☐	☐	☐	☒	☒	☐	☐



	9. ETXEBIZITZA BAT ESKURATZEKO AUKERA SUSTATZEA, GENERO- IKUSPEGIA BARNE HARTUZ. 9.1. Etxebizitza babestua eskuratzeko araudia. 9.2. Etxebizitza izateko eskubide subjektiboa. 9.3. Gazteek etxebizitza bat lortzeko aukera izatea.	ETXEBIZITZA SAILBURUORDETZA. ETXEBIZITZAKO PLANGINTZAREN ETA PROZESU ERAGILEEN ZUZENDARITZA	142. 1/142 2/143.3	☐ ☐ ☒ ☐ ☐ ☐ ☐ ☒ ☐ ☒ ☐ ☐
	10. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMEK DITUZTEN ETXEBIZITZA-PREMIEN INGURUKO HAUSNARKETA EGIN ETA HORIEI ERANTZUTEKO BITARTEKOAK ETA BALIABIDEAK JARTZEA. 10.1. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktima izan diren emakumeei etxebizitza bat bermatzeko araudia. 10.2. Etxebizitza Sailburuordetzako langileak sentsibilizatzea eta prestatzea. 10.3. Parte-hartze aktiboa lehendik dauden koordinazio-egituretan. 10.4. Jada existitzen diren informazioa eta sistemak koordinatzea, informazioa zabaltzen eta erabiltzen saiatzeaz gain.	ETXEBIZITZA SAILBURUORDETZA. ETXEBIZITZAKO PLANGINTZAREN ETA PROZESU ERAGILEEN ZUZENDARITZA ALOKABIDE VIESA	147.4	☐ ☐ ☐ ☐ ☐ ☐ ☐ ☐ ☐ ☐ ☒ ☒ ☒
	11. ETXEBIZITZA SAILBURUORDETZAK KUDEATUTAKO ETXEBIZITZEN ERAIKUNTZA-PROZESUETAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEA. 11.1. Dimentsio inklusiboa eta genero-ikuspegia txertatzea BOEen eraikuntza- ordenantzen berrikuspenean eta behin-behineko aldaketan. 11.2. Eraikuntza-prozeduretan neurriak artikulatzea, genero-ikuspegia horietan txertatzeko.	ETXEBIZITZA SAILBURUORDETZA. ETXEBIZITZA ETA ARKITEKTURA ZUZENDARITZA VIESA	142	☐ ☐ ☐ ☐ ☐ ☐ ☐ ☐ ☒ ☒ ☐ ☐

[illegible]



4 PLANA KUDEATZEKO SISTEMA

Jarraian, Sailaren Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Plana modu koordinatuan eta gardenean ezartzea bermatuko duen kudeaketa-eredua aurkezten dugu; eredu horrek, aldi berean, Sailaren barruan eskuratutako aurrerapenak eta lorpenak ebaluatzeko aukera emango du, baita gizartean eta herritarrekin izan dituenak ere, emaitza horiek gizarteratze aldera.

Sailaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planak ezartzen du berdintasunaren arloan zer esku-hartze ildo hartu behar dituzten kontuan XI. Legegintzaldian Sailari atxikitako zuzendaritzek eta erakundeek. Urte anitzeko dokumentu honetan helburu generiko eta estrategikoak aurreikusten dira, eta horiek orientatuko dituzte urteko plangintzan ondoren jasoko diren jarduerak, izaera operatibo eta zehatzagoarekin.

4.1. BERTINTASUNERAKO URTEKO PLANGINTZA

Sailaren urteko planaren garapenean, berdintasun-politikak ezartzeko **plangintza barne hartuko duen plan** bat prestatuko da bi urtez behin, eta hura bera ebaluatuko da ondoren. Plan horretan, honako hauek xedatuko dira:

- Helburu estrategikoak
- Helburuak garatzeko ekintza zehatzak
- Arduraduna
- Kronograma
- Aurrekontua

Gainera, urteko plangintzaren osagarri modura, urteko planari buruzko informazio laburtua jasotzeko aukera ematen da, sailarteko eta sailen barruko koordinazio-egiturei haren berri eman ahal izateko.

Bestalde, URA, IHOBE, VISESA eta ALOKABIDE erakundeek beren urteko plangintzak egingo dituzte, Sailaren lehentasunezko helburuekin bat etorritik.



4.2. BERDINTASUNERAKO EGITURAK

Jarraian, Sailak berdintasun-politiken alorrean zer oinarritzko egituratan parte hartzen duen azalduko da modu eskematikoan, planaren esparruan betiere:

BULTZATZEKO EGITURAK

EMAKUNDE da EAEn berdintasun-politikak sustatzeaz, aholkularitza emateaz, plangintza egiteaz eta ebaluatzeaz arduratuko den erakundea.

SAILAREN BERDINTASUNERAKO ADMINISTRAZIO-UNITATEA plana egikaritzeaz, haren segimendua egiteaz eta ebaluatzeaz arduratuko da, eta saileko organoei eta langileei aholkularitza eskainiko die

ERAKUNDEARTEKO KOORDINAZIO-EGITURAK

ETXEKO TRATU TXARREN ETA SEXU-INDARKERIAREN EMAKUME BIKTIMEI ARRETA HOBEA EMATEKO ERAKUNDEARTEKO AKORDIOAREN JARRAIPEN-BATZORDEA Erakundearteko **talde tekniko** bat dauka, bertan parte hartzen duten pertsonen laguntza emateko.

ERAKUNDEARTEKO KOORDINAZIO-EGITURAK

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ERAKUNDEARTEKO BATZORDEA Eusko Jaurlaritzaren berdintasun-jarduerak koordinatzeko organoa da eta berdintasunaren arloan aditua den **Sailarteko talde teknikoaren** babesa du.

SAILARTEKO KOORDINAZIO-EGITURAK

SAILETAKO TALDE TEKNIKOAK

Berdintasuneko unitateek eurek gidatuta eta koordinatuta, haien helburua berdintasun-politikak modu efektiboan aplikatzen laguntzea da sailari atxikitako edo lotutako zuzendaritzetan, erakunde autonomoetan eta sozietate publikoetan; horretarako, informazioa eta laguntza jasoko dute berdintasun-politikak garatzeko prozesuaren fase bakoitzean.

4.3. JARRAIPEN-SISTEMA

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planaren jarraipen-sistema oinarritzko tresna izango da; haren bidez, Sailak XI. Legealdian egindako berdintasun-politikaren jardunak, lorpenak eta inpaktuak hausnartu ahal izango dira. Alde horretatik, emaitza positiboak izan dituzten jardunbideak eta kudeaketa-ereduak zein diren adieraziko du, baita hobetzeko beharra dutenak ere; aldi berean, hasieran aurreikusi gabeko jarduerak baina ezarpen-prozesuak aurrera egin ahala egokitzen jotakoak zein diren ere identifikatuko du. Azkenik, erabaki politikoak eta teknikoak hartzen laguntzeko, berdintasuna sailaren erakunde-kulturan, jardunean eta esku-hartzean biltzen dela bermatzeko.

Sailak onartutako konpromisoari **3 jarraipen mota** egitea dago aurreikusita:

- Lehenik eta behin, Sailak eta haren organismo publikoek **urtero informazioa xehatua emango diote Emakunderi**, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana ebaluatzeko, erakunde publiko guztietarako apropos diseinatutako jarraipen mekanizatua eta telematikoa egiteko sistemaren bidez: [Berdintasunerako Planaren ebaluazioa eta segimendua egiteko aplikazioa](#).

Jarraipen horren emaitza urtero islatuko da **agintari publikoen jardunari buruzko memoria batean**, Emakundek argitaratzeko duen berdintasun-plana betearazteko. Txosten horiek emandako informazioa biltzen dute, eta EAEko administrazio publiko guztiazen jardueren analisi kuantitatiboa eta kualitatiboa biltzen dute: [Politika publikoen ebaluazioa](#)

Horrez gain, informazioa biltzeko eta zabaltzeko beste sistema batzuk ere gaitu dira, EAEko administrazioek egindako jarduerekin lotuta: **Berdintasun-mapa eta jardunbide egokien bankua**:

<http://www.emakunde.euskadi.eus/u72-20021/eu/x57aEAIWar/comunJSP/x57ConsultaInOP.do?accion=idioma&lang=eu>

<http://www.emakunde.euskadi.eus/u72-20021/es/x56aBbpiWar/x56aJSP/x56aCambioldioma.do?idioma=es>

- Bigarrenik, Sailak legealdiaren bi unetan informatu beharko du Emakundek koordinatzen duen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordearen bidez: **legegintzaldiko lehentasunak ezartzen ote diren ikusteko erdibidean eta amaieran izandako jarraipena**; horretarako diseinatutako txantiloiazen bidez eskumenak aintzat hartuta identifikatutakoak, alegia.

- Hirugarrenik, Sailak berak informazioa jasotzeko metodo soila eta arina aurreikusi du; haren bidez, **urteko dokumentu labor batean** Sailaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planaren betetze-maila islatuko da. Esandako dokumentu horren bidez, Emakumeen eta Gizonen Sailarteko Batzordean urteko planaren egikaritze-maila adieraziko dute.
- Azkenik, Sailak **«EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren adierazle estrategikoen sistemaren jarraipenean» lagunduko** du: VII. Planaren ebaluazioak berdintasun-politiken epe ertain-luzerako ondorioen ebaluazio bat egitea begiesten du, Genero Berdintasunerako Indizetik abiatuta, sintesirako adierazle-sistema estrategiko baten bitartez. Sailak, bere eskumenen arabera eta zerikusia duten gainerako erakunde publikoekin batera, laguntza emango du adierazle horien jarraipenean eta, batez ere, adierazleen aurrerabidean. Horrek baterako lan koordinatua eskatzen du, berdintasunaren arloan aurrera egiteko Euskadiko bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean, genero-berdintasunari dagokionez, Europako lehen herrialdeen artean kokatzeko modua izan dezan.

4.4. KOMUNIKAZIO-SISTEMA

Sailaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planaren beste oinarrietako bat —diseinuaren, kudeaketaren, ezarpenaren eta ebaluazioaren fasean— Saileko langileen inplikazioa lortzea da, dela politikoa, dela teknikoa, sailarteko koordinazio bikain baten bidez. Era berean, garrantzitsua da gizarte-partaidetzarako prozesuak artikulatzea, emakumeen interesak defendatzen dituzten elkarten ehunari arreta berezia eskainita.

Alde horretatik, planak komunikazio ona beharko du **barruan zein kanpoan**, sailak, bere eskumen-esparruan, emakumeen eta gizonen berdintasun-politikak sustatzeko hartzen dituen konpromisoak sozializatzeko. Esandako komunikazio-plan horrek bi une garrantzitsu izango ditu egikaritzean: plana onartzeko faseko komunikazioa eta plana ezartzeko garaiko komunikazioa.



komunikazio-Plana.
docx



4.5. AURREKONTU-SISTEMA

Gogoratu behar da ezinbestekoa dela beharrezkoak diren bitartekoak edukitzea, plan hau ezarriko bada.

Alde horretatik, **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako** martxoaren 18ko 4/2005 Legeak haxe dio 14. artikuluan: «Administrazio autonomiko, foral eta lokalek, *urtero, lege honetan jasotako eginkizunak betetzeko eta neurriak egikaritzeko behar dituzten ekonomia-baliabideak izendatuko eta zehaztuko dituzte bakoitzaren aurrekontuetan*».

Horrez gain, **administrazio autonomikoa eta foru-administrazioa ordezkatzeko** dituen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordeak 2016ko uztailaren 21ean *adostu zuen poliki-poliki handitu beharko dela esandako administrazio horietan berdintasun-politika bideratutako aurrekontuen ehunekoa*.

Horrenbestez, bitarteko horiek modu xeheagoan ipini beharko dira urteko planetan, legealdi-plan hau haien bidez zehaztuko baita. Nolanahi ere, azpimarratzekoa da honela banatuko dela aurrekontua: batetik, berdintasunerako administrazio-unitate baterako partida espezifiko bat, eta, bestetik, urteko planetan aurreikusitako ekintzak ezartzeko aurrekontu propio bat.



**BERDINTASUNA
BULTZATZEN
DUEN
ADMINISTRAZIO
PUBLIKOA**